


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

POLITIKA KONPARATUA

Politika Zientzia eta Kudeaketa Publikoa
2021-22 ikasturtea

Irakaslea: Galder Sierra Zapirain

AURKIBIDEA

1. GAIA: Politika konparatua eta metodo konparatua.....	2
2. GAIA: Sistema politikoa prozesu historikoaren emaitza gisa.....	12
3. GAIA: Gobernu sistema presidentzialista, semipresidentzialista eta parlamentarioak.....	24
4. GAIA: Lurralde antolaketa eredu konparatuak.....	38
5. GAIA: Kultura eta azpikultura politikoak.....	54
6.1. GAIA: Alderdi sistema konparatuak.....	58
6.2. GAIA: Alemania, Frantzia, Erresuma Batua eta AEB.....	66
7. GAIA: Egungo konparazio multidimentsionala eta enpirikoa.....	83

1. GAIA: POLITIKA KONPARATUA ETA METODO KONPARATUA

ZER DA POLITIKA KONPARATUA?

Zientzia politikoaren azpi-diziplina bezala hartzen da. Batzuk azpi-diziplina dela ukatu: politikaren ezagutza eta ikerkuntza beti delako konparatua.

Definizioak:

- Rose (1991: 439): “datu enpirikoak aurkeztea [litzateke], sistema edo fenomeno politikoak konparatzeko asmoarekin”.
- Landman (2011: 35): “PKren helburua inferentziak formulatzea litzateke herrialdeen arteko konparazioaren bidez”.
 - Inferentzia: “ezagutzen ditugun gertaerak baliatu ezagutzen ez ditugunen inguruan zerbait ikasteko” (King et al. 1994: 119).

Gaur egun, kasu-azterketa eta N handiko ikerketen arteko erdibide moduan ulertzen da. Lijphart-en (1971) arabera 2 eta 49 kasu bitarteko azterketari erreferentzia egingo lioke.

Zer konparatzen da?

Normalean Estatuak (nahiz eta bestelako lurraldeak ere konparatu daitezkeen) eta, zehazki, berain sistema politikoetako ezaugarri ezberdinak:

- Estatuaren izaera: demokratikoa – autoritarioa.
- Gobernu motak: presidentzialismoa, semi-presidentzialismoa, parlamentarismoa.
- Lurralde antolaketa: deszentralizazio maila.
- Alderdi sistema: pluralista polarizatua, pluralista moderatua, bipartidista...
- Gaur egun askotariko dimentsioak lantzen dira: demokrazia ereduak (gehienen demokraziak vs botere partekatukoak -konsozionalak-), polarizazio mailak...

Zergatik politika konparatua? (Landman, 2011)

1) Testuingurua azaltzeko:

PKren lehen helburua herrialde baten edo batzuen gertaera politikoak azaltzea da. Edozein ikerketa sistematiko azalpen edo deskripzio on batekin azaltzen da, ondoren beste maila bateko helburuei heltzeko. Era berean, etnozentrismoa ekiditeko balio du; zentzu bikoitzean:

- Partikularismoa: fenomeno bat leku bakar batean ematen dela planteatzen duen ustea.
- Unibertsalismoa: leku bateko fenomenoak leku guztietara zabaldu daitekeela.

2) Sailkatu ahal izateko: Herrialdeen ezaugarri politikoak ulertu ahal izateko, hauen sailkapen kontzeptualak landu ohi dira. Adib.: sistema autoritarioak-demokratikoak, presidentzialistak-parlamentaristak, federalak-unitarioak...

Ikerketa sistematikoen oinarritzko urratsa ere bada, baina testuinguruaren azalpena baino maila altuagokoa, herrialdeak multzokatu nahi dituen heinean.

3) Hipotesien kontrasterako, teoria eta kontzeptu berriak azaltzeko:

Aurretik azaldutako eta sailkatutako horretan aldagaien eragina eta beraien arteko harreman empirikoak egiaztatu ahal dira; era induktibo edo deduktiboan.

Aurreko bi urratsetan oinarritzen da eta ikerketa sistematikoaren garapen urrats bat harago legoke. Adib.: klase gatazkaren ibilbide eta herrialde ezberdinen sistema politikoa, iraultza sozialak eta demokratizazio prozesuak...

4) Auresateko:

Hipotesien kontrastearen luzapen logikoa litzateke; hau da, gertatu daitekeenaren inguruko aurreikuspenak egitea, hasierako behaketetan ikusitakoa abiapuntu bezala hartuta. PKren helburu goren eta zailena litzateke.

Egun hainbat ikerlarientzat arrazoi honek pisua galdu du, hipotesien kontrastearen mesedetan.

Adib.: hauteskunde-legeak eta alderdi kopuruak, gobernuan daudenen abantailak beraien lehiakideekiko, kultura ezberdinen elkarbizitza eta gatazkak, baliabide ekonomikoak eta demokratizazioa...

IBILBIDE HISTORIKOA

Politika konparatua presente dago teoria politikoa existitzen denetik (Aristoteles, Tocqueville, Marx, John Stuart Mill, Weber, Durkheim....).

Hiru fase nagusi: 1) Instituzionalismo zaharra (XIX. bukaeratik II. Mundu Gerrara arte), 2) Konduktismoa/behaviorismoa (1945-1970), 3) Instituzionalismo berria (1970tik aurrera).

Politika konparatuaren adibide 'klasiko' bat: Aristotelesen (K.A. IV) gobernuen sailkapena.

Gobernatzen duten pertsona kopurua

	Bat	Gutxi	Asko
Gobernu motak	Puruak Monarkia	Aristokrazia	Errepublika
	Ustelak Tirania	Oligarkia	Demokrazia

1. FASEA: INSTITUZIONALISMO ZAHARRA: XIX. mendeko azkene hamarkadak – 1945

Zuzenbide publikoarekin oso lotua. Ikuspegi horren arabera, legeek eta erakundeek zehazten dituzte pertsonen funtzio eta jardura politikoak.

Politika konparatuko lehenengo eskola garrantzitsua Konstituzio Zuzenbidearen azterketari lotuta agertzen da:

- Menpeko aldagai (azaldu nahi zena): instituzioen egonkortasuna.
- Aldagai askeak (gaitasun esplikatzailea dutenak): erakunde politikoak, Konstituzio eta marko juridikoa, Estatua (estatu mota).

Instituzionalismo honen arabera aldagai hauek azalduko lituzkete herrialdeen arteko desberdintasunak.

Mende berriarekin ikusi zen aldagai hauek ez zituztela agente instituzional eta aktore ezberdinen arteko harremana behar bezala azaltzen, baina alternatibarik ez zen planteatu.

Helburua teknika legegilea hobetzea izaten jarraitzen zuen.


2. FASEA: KONDUKTISMOA/ BEHAVIOURISMOA: 1945-1970

II. Mundu Gerratik aurrera alternatiba gorpuzten joan zen AEBn.

Helburua prozesu politikoak aztertzea zen, horretarako arreta aktoreengan kokatuz.

Honen atzean hainbat fenomeno garaikide azaldu nahi izatea zegoen: II. Mundu Gerra, kolonizazio prozesuen bilakaera, masa mugimenduen sorrera eta garapena...

Adibidez: Koloniek independentzia lortu ostean, herrialde demokratikoen antzeko konstituzio, araudi eta instituzioak hartu arren ez dute metropoliek lortutako egonkortasun demokratikoa lortuko, gizarteak ezberdinak direlako, honek atzera botatzen du lehengo konstituzionalismo zaharrak erabilitako logika (soilik legeak eta instituzioak aztertzea).



Azaldu nahi zen elementua (menpeko aldagaia) egonkortasuna zen, baina kasu honetan sistema demokratikoa (egonkortasun demokratikoa).

Gai hauek AEB-n segurtasun nazionalerako auzia bihurtu ziren:

- Boteretik sustatzen da mundu erregioetan espezializatutako adituak egotea: institutu erregionalak sortzen dira (Afrika, Asia...)
- Mundu garatua eta garapen prozesuetan arreta jartzen da politika konparatuaren tresna erabiliz.

Galdera gakoa: zerk azaltzen du herrialde batzuk demokratikoki garatuak izatea eta beste batzuk ez?

Tabla 7.3 Condiciones para el estallido de guerras y revoluciones campesinas en el siglo XX

Variables	México	Rusia	China	Vietnam	Argelia	Cuba
Condiciones de partida	Campesinado atado a la tierra	Campesinado atado a la tierra	Campesinado atado a la tierra	Campesinado atado a la tierra	Campesinado atado a la tierra	Proletariado azucarero
Transformación capitalista	Si	Si	Si	Si	Si	Si
Modo de expansión capitalista	Expansión violenta de las granjas	Empresarios	Colonización de tierras nuevas	Empresarios	Expansión violenta de las granjas	Empresarios
Crecimiento de la población	Si	Si	Si	Si	Si	Si
Autoridad central	Porfirio Díaz	Zarismo	Chiang Kai-shek	Francia	Francia	Batista
Partidarios de la vanguardia	Ejército constitucional	Ejército ruso soldados campesinos	Ejército Rojo			
Campesinos libres	Si	Si	Si	Si	Si	Si
Guerra campesina	Si	Si	Si	Si	Si	Si
Resultado	Revolución	Revolución	Revolución	Revolución	Revolución	Revolución
Beneficiarios	Clase media	Partido comunista	Partido comunista	Partido comunista	Clase media	Ejército-Partido comunista

FUENTE: Adaptada de Wolf (1969).

Galderari erantzuteko, behaviourismoa nagusitu:

- Azalpena batez ere kultura politikoan eta baloreetan bilatuko da.
- Orain ez dira hainbeste erakundeak, baizik eta gizabanakoak eta gizartearen kultura politikoak ikergaiaren zentroa.
- Hauek ezagutzeko, ikergaia erakundeetatik desplazatzen da aktore politiko eta sozialetara.
- Garaiko ikono garrantzitsuenak Almond eta Verba dira. Beraien ikuspegitik egonkortasun politikoa herrialde baten kulturarekin neurtzen da.

Ikerketa kuantitatiboak nagusituko dira; inkesta batez ere.

Lortutako datuen bitartez hipotesiak berretsi edo alboratu eta konprobatze eta kontrastatze sistematikoa egingo da.


Azken batean, kausalitatea bilatuko da behaketa enpirikoaren bitartez.

Ikuspegi horren arabera, politika beste jardueretatik banaturik dago.

Honek Parsons-en 'Sistemen Teoriari' bide emango zion:

- Sistema politikoaren elementu ezberdinek (aktoreek, instituzioek, arauak, ...) funtzio bat dute 'ekosistema politikoan'.
- Elementu desberdinen arteko elkarrekintzak eman daitezke (azpisistemen ideia), horiek ikertu behar direlarik sistema bere osotasunean ezagutzeko.
- Zentzu horretan, aktoreek sistema bakoitzaren logikak eta elkar-ekintzak definituko dituzte.
- Instituzionalismo zaharraren logika aldatuko da. Alde horretatik, instituzioak, erreferentziako marko izaten jarraituko badute ere, oraingoan aktoreen elkar-ekintzaren emaitza izango dira, eta ez alderantziz.

Ikuspegi honek Easton-en eskutik jarraipena izan zuen.



3. FASEA: INSTITUZIONALISMO BERRIA: 1980. hamarkadatik aurrera

70. hamarkadan sortu eta 80. hamarkadan indartu zen.

Instituzionalismo zaharraren printzipio batzuk mantentzen ditu baina ikuspegi berri batez: legeak eta arauak lotesleak dira, beraz, ikertu behar dira; baina hortik haragoko elementuen (indar-harremanak, egitura sozialak, kultura politikoa, ...) garrantzia aintzat hartzen hasten da.

Beraz, instituzioek jendartearengan eragina izango dute, baina jendarteek ere instituzioak moldatuko dituzte.

Arreta politika publikoetan jarriko da, sistema politikoak horren arabera konparatuz. Latinoamerikako eta Europa ekialdeko hainbat herrialderen demokratizazio prozesuak eragin zuzena izango zuen.

Bi adar ezberdinu ditzakegu instituzionalismo berrian:

- Rational Choice: Norbanako ekintza arrazionalen indarra jarri. Instituzioek markatutako hertsadura testuinguru batean bere onurak maximizatu nahi ditu.
- Instituzionalismo historikoa: Instituzioen arauetan indarra jarri. Norbanakoen nahiak testuinguru instituzionalaren barruan forma hartzen dute.

Laburbilduz

1. Instituzionalismo zaharra: Metodo deskribatzaile-induktiboa: araudien alderaketak. Aldagai askeak: arau eta prozedura legalak. Menpeko aldagaiak: sistema politikoen egonkortasuna eta norabidea. Adib.: hauteskunde-legeek alderdi-sistemak baldintzatzen dituzte.
2. Konduktismoa: Easton-en kritika abiapuntua. Arreta aktore politikoengan eta beraien kultura politikoan. Easton-en kritikak abiapuntua ikuspegi berri bati.
3. Instituzionalismo berria: Konduktismoari kritika: ez dute uste ikerketa norbanakoen interesen gehiketara mugatu daitekeenik. Instituzioek autonomia dute eta elkar-ekintza horren ezinbesteko aktoreak dira.

Politika konparatuaren garapena (Landman, 2011: 343; egokitua).

Epealdia	Ikerketaren objektua	Metodo konparatua
Zuzenbide publikoaren fasea	Diseinu instituzionala eta ordenu politikoa	Herrialde gutxiren alderaketa eta bakarren ikerketa
Konduktismoa (1945-1970)	Portaera politikoa. Egorkotasun demokratikoari lotutako aldagaiak.	Herrialde askoren alderaketa. Ikerketa kuantitatiboak
Instituzionalismo berria (1970tik aurrera)	Instituzio eta aktore politikoen arteko harremana.	Herrialde gutxiren arteko alderaketa. Teknika kuantitatibo eta kualitiboak.

TEORIA ETA METODO KONPARATUA

Teoria baten hainbat elementu garrantzitsu (laburrean):

- Kontzeptuak: ideia bat ordezkatzeko duen sinboloa edo hitza. Hainbatetan beraien esanahia auzitan egongo da; batez ere fisikoak ez diren kontzeptuez ari bagara. Adib.: demokrazia edo sistema politikoa.
- Aldagaiak: balio bat baino gehiago jaso ditzakeen kontzeptu baten ezaugarri behagarriak. Adib.: demokrazian (kontzeptua) botere-banaketa, giza eskubideak egotea, hauteskunde libreak, ...
 - Beraien arteko harremana azaldu nahiko da. Bi mota: menpekoak eta askeak.
 - Menpekoak: dependentsia bat dauka beste batekiko. Hau da ikerketa batean azaldu nahiko duguna.
 - Askeak: gaitasun esplikatzailea dutenak.
- Hipotesiak: uste baten adierazpena errealitate edo fenomeno bat azaltzeko. Aldagaien arteko harremanek hipotesietan hartzen dute forma. Adib.: herri euskaldunetan bozka abertzale handiagoa dago.

Azken batean, teoria batekin fenomeno edo errealitate bat azaldu nahi dugu. Adib.: hizkuntza-hautuak bozkaren zentzuan eragina duela.

Teorizazio egokiak (Manheim eta Rich, 1988: 41; Anduiza et al., 1999: 17; Blas, 2008: 62):

- Gaitasun esplikatzaile handia.
- Errealitatea laburbiltzeko eta sinplifikatzeko gaitasuna.
- Azalpen asegarriak ematen ditu.
- Ongi egituratuta dago.
- Faltsutu daiteke.
- Gizarteko fenomeno garrantzitsuak azaltzen ditu.
- Aurreraketa egiteko balio du.

Teorien kontrasterako bideak:

Esperimentazioan oinarritutako bidea.

- Ohiko natur-zientzietan.
- Iragarpena teori baten arabera > ikergaia aldatu estimuluaren bitartez > emaitzak teoriarekin alderatu.
- Adib.: ongariak (aldagai askea) nola eragiten duten landareen (azterketa unitatea) hazkunderan (menpeko aldagaia).

Behaketan oinarritutako bidea; bi mota:

- Kasu kopuru handiko behaketa.
- Kasu-azterketak.

Metodoak:

Esperimentala: gure esku dago aldagai askearen baldintzak aldatzea.

Estatistikoa: teknika matematikoak erabiltzen dira.

Konparatua: kasuen arteko antzekotasunak bilatzen ditu.

Azterketa konparatu mota ezberdinak:

*Abstrakzio maila eta aukeratutako kasu kopurua zuzenki erlazionatuak egongo dira: zenbat eta kopuru handiagoa aukeratu, orduan eta abstrakzio maila handiagoa (Landman, 2011: 51).

1) Kasu-azterketak:

Hainbat autoreentzat ezin dira metodo konparatuaren barruan sartu (Sartori). Beste hainbatentzat, berriz, baldintza batzuk betetzen badituzte, bai:

- Rose (1991: 449): “herrialde ezberdinetan aplikagarriak diren kontzeptuak jasotzen badituzte”.
- Mackie&Marsh (1998): Beste eremu batean garatutako kontzeptuak edo teoriak baliatzen badituzte. Hipotesi orokor bat frogatzeko balio badute.
- Lijphart-en (1971) tipologia kasu-azterketak onartzeko: Izaera interpretatzailea dutenak: aurretik existitzen den teoria bat erabiltzen dute kasu bat argitzeko (Collier-ek ez du onartzen). Hipotesiak sortzen dituztenak. Teoria ahultzen duten kasu-azterketak. Teoria berresten dutenak. Desbideratuak.

Adib.: Michiganeko taldeko hauteskunde-azterketa EEBBetan eta beste herrialdeetan.

Abantaila nagusia: beste bi motak baino azterketa sakonagoak egiteko aukera ematen du.

Arazo nagusia: teorien eraikuntzari begira, kasu gehiago erabiltzen dituzten metodoak baino ekarpen txikiagoa egiten dute.

2) Kasu mugatuen konparaketa sistematikoa.

Abantaila nagusiak: Kasu gehiago erabili eta horren ondorioz zehaztasun gutxiago eskaini, baina, orokorrak diren ondorioak atera.

Gakoa oreka lortzea: Zehaztasuna / orokortzeko gaitasuna. Deskripzioa / azaltzeko gaitasuna.

Alderaketa kuantitatiboa eta kualitatiboa batera erabili daitezke.

Adib.: EH eta Kataluniako dinamika mobilizatailea (kuantitatiboa), bakoitzaren ibilbide historikoari erreparatuta (kualitatiboa).

Kasuen aukeraketan zehaztu beharreko bigarren gakoa: Konparaketa antzekoak diren herrialdeen artean egin beharko litzateke edo euren artean ezberdinak direnen artean?

- Antzekotasun handieneko sistema (Dogan&Pelassy, 1990: 133):
 - Ahalik eta antzekotasun gehien dituzten herrialdeak aukeratu, ezberdinak diren ezaugarrien gaitasun esplikatzailea aztertu ahal izateko.
 - Zenbait aldagai kontrolatu, beraien eragina mugatzeko, beste dimentsio batzuk sakonago aztertuz.
 - Adib: eremu geografiko zehatz bateko herrialdeak (Afrika, Europa, ...) ezaugarri batzuk konpartitzen dituztenak (erlijioa, hizkuntza, kultura, ...; aldagai askeak), baina baten bat ezberdina dutena (aldagai aske 'erabakigarria'), eragin zehatz bat aztertu nahian (sistema politiko mota, esaterako; menpeko aldagaia)

- Antzekotasun txikieneko sistema (Collier, 1993: 112):
 - Antzekotasun ahalik eta gutxien dituzten herrialdeak aukeratu, azaldu nahi den eragina eta izaera esplikatzailea izan dezaketen 2-3 aldagai salbu.
 - Gure oinarri teorikoaren arabera adierazgarrienak diren faktore ezberdinenak aukeratu, horietatik azalpenerako gaitasun handiena duten elementu komunak ateratzeko: kultura, erlijioa, historia, garapen ekonomikoa, ...
 - Adib: prozesu iraultzaileak (menpeko aldagaia) izan dituzten herrialdeak (Errusia, Txina, Vietnam, Aljeria, Kuba, ...), euren artean oso ezberdinak direnak, baina gaitasun esplikatzailea izan dezaketen aldagai komunak (aldagai askeak) aintzat hartuz (esaterako, nekazarien inplikazioa).

Metodo baten edo bestearen aukeraketa garatu dugun teoriaren arabera izango da:

- Aldagai garrantzitsu guztiak identifikatu ditzakegunean eta horiek konpartitzen dituzten herrialdeak aurkitzen baditugu, 1. go metodoa.
- Normalean errazago aldagai ezberdinak dituztenak baina esplikatzailea dena komuna; beraz, 2. metodoa.

Arazo nagusiak: Kasu kopuruaren aukeraketa: Normalean 2 eta 49 artean. 10etik behera ez dira analisi estatistikoak erabiltzen; hortik gora bai. Kasu kopurua helburuen eta aldagai kopuruaren arabera (Anduiza et. Al, 1999: 60):

HELBURUA	ALDAGAI ASKO	ALDAGAI GUTXI
Deskribatzea	Kasu gutxi (estrategia intentsiboa)	Kasu asko (estrategia estentsiboa)
Azaltzea	Kasu asko	Kasu gutxi

Ohikoa: aldagai asko eta kasu gutxi, eta ondorioz, ikerketaren izaera deskribatzaile izatea, baina kausalitatea azaltzeko gai ez izatea.

Lijphart-ek (1971) honako proposamenak egiten ditu konponbide bezala:

- Handitu ahal bezain beste kasu kopurua.
- Antzeko kasuetan jarri fokoa: Garrantzitsuak ez diren aldagaiak kontrolatuz. Garrantzitsuak diren aldagaien eragina neurtuz.
- Aldagaien kopurua murriztu, horretarako bi aukera daude: Bildu aldagai desberdinak faktoreetan (ahal bada teknika estatistikoaren laguntzaz) Teoria parsimoniotsuagoak erabili.

3) Analisi estatistiko orokorra

- Kasu asko.
- Garapen teknologikoari lotuta.
- Ikuspegi kuantitatiboa.
- Datu fidagarrien eskuragarritasunari lotuta.
- Hasiera demokrazia eta ekonomiaren inguruko ikerketei lotuta.

Abantailak:

- Inferentzia eta teoria sendoagoak sortzen ditu.
- Ez-ohiko kasuak identifikatzeko balio du.

Arazo nagusiak:

- Aztertutako herrialdeen kopurua zabaldu, sakontasuna galtzearen ordainetan. Zentzu horretan, hainbat gaien azterketarako ez da modu egokia: harreman historikoak, negoziazio politikoak, taldeen arteko akordioak, ...
- Ikerketa-gaiaren arabera, denbora eta bitarteko falta ikertu nahi den gaiaren inguruko informazio egokia jasotzeko. Egun, datu-baseen ugaltzearekin, arazo hau apaldu da.

Metodo ezberdinen beste arazo batzuk (Landman, 2011: 55-73):

Baliokidetasunen ezarpena: Ohikoa izaten da bai kontzeptuetan, zein neurgailuen ezarpenean baliokideak ez izatea. Baliatutako tresnak baliagarriak izan behar dira leku ezberdinetan erabiltzeko (unibertsalak), baina kontutan izanda tokiko errealitateak baldintzatuko dituela (erlatibista).

Ikertzailearen joera: Hau da, ikertzailearen balore sistemak azterketan duen eragina; izan kasuen aukeraketan, izan azken emaitzen interpretazioan (Mackie&Marsh, 1998: 189).

Sasi-harremanak: Hauek gertatzen dira azken emaitzaren aldagai esplikatzailea ez denean aintzat hartu, eta ez dagokion aldagaiari izaera azaltzailea eman zaionean. Adib.: COVIDaren eragina eta bozka.

Iruzur ekologiko eta indibidualistak: Ikerketa batek ondorioak atera nahi dituzenean maila bateko datuen inguruan, beste maila bateko datuak erabiliz; izan indibidualak edo agregatuak.


- Ekologikoa: datu agregatuak (adib.: hauteskunde emaitzak) norbanakoaren joeren inguruan ondorioak ateratzeko baliatzen direnean. Adib.: emakume kopurua lurralde batzuetan eta bozkaren zentzua.
- Indibidualista: maila indibidualeko azterketen bidez (adib.: inkestak) ateratako datuak maila agregatuko fenomenoaren inguruan ondorioak ateratzeko erabili nahi direnean. Adib.: inkestaren joera autoritarioa sistemaren joera orokorrera estrapolatu nahi izatea.

Ikuspegi dinamiko horren arabera (des)demokratizazio eragiten duten hiru mekanismo nagusi:

- Pertsonen arteko konfiantza sareen eta politika publikoen arteko integrazioa, edo integrazio falta.
- Desberdintasun nagusien isolatzea politika publikotik.
- Botere-gune nagusien (batez ere hertsadurarako gaitasuna dutenak) autonomia handitu edo gutxitzea.


Demokratizazio efektiboa (Tilly, 2007: 48):

- Demokratizazioak ‘estatu indartsu’ bat (gaitasun altukoa) behar du.
- Baina puntu batetik aurrera estatuaren gehiegizko gaitasunak demokratizazio errazten dituzten mekanismoak ahultzen ohi ditu.
- Puntu hori politika liskartsu demokratikoaren orubea izango da.
- ‘Botere zentrala vs herri borondatea.



Demokraziarako bi bide (Tilly, 2007: 50):

- ‘Estatu indartsuaren’ bidea: Lehenengo fase autoritario bat. Ondoren kontsulta babestuaren zabalpena ohi dator. Historiaren arrastoa: estatu demokratiko garaikideek iragan autoritario baten ezaugarriak mantendu ohi dituzte.
- ‘Estatu ahularen’ bidea: Kontsulta babestua estatuak gaitasun sendoak eskuratu aurretik ematen da. Atzera-pausu gehiago ekarri ohi du, estatua ez delako gai instituzio demokratikoak bermatzeko. Historiaren arrastoa: Botere estatalaren esku-hartzeari oztopo gehiago jarri ohi zaizkio.



FRANTZIA


Bost fase historiko nagusi:

1) Iraultza garaia: Iraultza Frantziarra (1789), Errepublika (1792) eta Inperioa (1799-1815):

- Iraultzen jatorria: gerrak sortutako gastuei aurre egiteko neurrien aurreko sektore ezberdinen haserrea.
- Bi blokeen gorpuztea: gehien kaltetutakoak (izaera transbertsala) vs Antzinako Erregimenaren onuradun nagusiak (goi eliz-gizon eta nobleak).
- Mekanismo demokratizatzaileak:
 - Desberdintasunen isolatze maila bat: Lurralde administrazioaren homogenizazioa. Botere politikoaren homogenizazioa: Estatu Orokorretatik Asanblada Nazionalera, Kode zibilaren sorrera, ...
 - Konfiantza sare berrien integratzea: sektore liberal berriek gobernu eta administrazio arduretara, ordura arte nobleek eta eliz-gizonek betetako funtzioak ordezkatuz.
 - Botere-guneen autonomia mugatu: hertsadura bitartekoan zentralizazioa (gendarmeria).



Probintzietatik (Antzinako Erregimena) departamentuetarako (1790) aldaketa.



Sieyès-Thouret-en (1789) antolaketa proposamena.

2) 'Burgesia oligarkikoaren garaipena':

- Errestaurazioa (1814-1848) 1814tik aurrera Borboiak boterean (Luis XVIII): erreazio kontserbadorea baina Iraultzak ezarritako hainbat neurri onartu behar izan zituzten (konstituzioa, parlamentarismoa, ...). Bere ondorengoak (Carlos X) erregearen antzinako eskumenak berrezarri nahi izan zituen. Honek 1830ko iraultza piztu zuen (burgesa eta langileen artean), izaera liberal-moderatuko errege berria ezarriz (Luis Felipe Orleans-ekoa).
- II. Errepublika (1848-1852): 1848ko iraultza (burgesak, langileak eta nekazariak), eskaera errepublikarrak eta sozialistak ez asetzaren ondorioz. Langileek erregimenaren aurkako borrokari jarraipena, baina arrakasta gabe. Askatasun berrien onarpena: gizonezkoen sufragio unibertsala, esklabotza eta heriotza-zigorren deuseztea, besteak beste.

ERRESUMA BATUA

Britainiar garapen konstituzionalaren epeak:

1) Parlamentuaren jatorria (1066-1485):

- 1066tik aurrera normandoen inbasioaren eskutik inposatuta eredu feudalak, noblezia eta eliza-gizonak beharrezkoak egiten zituen Erregearen erabakiak aplikatu ahal izateko. Horretarako hauek biltzen ziren Kontseiluak osatu ziren. Lord-en Ganbararen aurrekaria.
- 1215an Carta Magna onartu zen nobleziak eta Elizak pairatzen zituen Erregearen gehiegikeriei aurre egiteko. Atzera/aurrera-pausuekin egonkortzen joan zen.
- 1265tik aurrera Erregea, gerrarako dirua behar zuenean, zaldunak eta burgesak deitzen hasi zen. 1341an lehen aldiz noblezia eta eliza-gizonak, batetik, eta zaldunak eta burgesak, bestetik, era berezian deituak izan ziren, Goi eta Behe Ganberei sorrera emanez; bigarrena Komunen Ganbararen aurrekaria. Behe Ganbararen aukeraketa zentsitarioa oso mugatua ondasunen arabera (gizon helduen %3a).

2) Estatu modernoaren sorrera eta Erregearen zentralizazioa (1485-1603).

- Formalki hiru botere-gune nagusi: Erregea, lordak eta komunak; hiruek bazuten inizatibarako eskumena, baina praktikan lehenengoak agintzen zuen komunen ordezkariak 'erosiz'.
- Tudor dinastiaren agintaldi zentralista.

3) Iraultzak eta Koroa eta Parlamentuaren arteko oreka bilatzea (1603-1689):

- Petition of Rights (1628): Erregeak parlamentuaren baimenik gabe gerrarako zergak ezartzeko debekua finkatzen du.
- Erregeak, berriz, ez du Carta Magna errespetatzen eta 1629an parlamentua disolbatzen du.
- 1640an berriz, Eskoziako matxinada zapaltzeko beharrezkoak diren gastu militarrei aurre egiteko Parlamentua deitzen du. Baina 1642an desadostasunek gerra zibila pizten dute: parlamentuaren aldekoak vs Erregearen aldekoak.
- Cromwell-en garaia: errepublika (1649-1651) eta bere protektoradoa (1653-1659):
 - Parlamentuak bere garrantzia indar-berritu zuen; batez ere Komunen Ganberak.
 - Nazio ezberdinak batzeko ahalegin militarra.
- Estuardoen Errestaurazioa (1660-1688).
- Iraultza Loriatsua (1688):
 - Iraultza soziala baino Estatu kolpea; nekazarien inplikazio txikia.
 - Aristokratak eta protestanteak Jacobo II.a errege katolikoaren kontra altxatu eta ondorioz Parlamentua indartzen da.
 - Batetik, parlamentua eta koroaren, eta bestetik, katoliko eta protestanteen arteko tentsioen ondorio.
 - Erregeak ez du inoiz berriro botere absolutua izango eta parlamentarismo modernoaren abiapuntu bezala ulertzen da egun.

4) Gobernu erakundearen osatzea eta erregimen parlamentarioaren sorrera (1689- 1832):


- Testuingurua: Bateratzea Eskoziarekin (1707) eta Irlandarekin (1801), inperioaren zabalpena, gerra napoleonikoak eta EEBBekin.
- Hainbat neurri demokratizatzaile:
 - Bill of Rights (1689): erregearen eskumenak mugatu, parlamentuaren botereak berrestu eta herritarren eskaerarako eskubidea.
 - Act of Settlement (1700): epaileen mugikorezintasuna jarrera desegokian ez badira erortzen eta parlamentariak ezin jaso Erregearen 'eskupekorik'.
 - Erregeak bere aholkulari-batzordea mantendu baina beraien gaitasunen arabera aukeratuak.
 - Lehen ministroaren irudiak indarra hartzen du 1721tik aurrera.
- Gobernu sistemaren nondik norakoak:
 - Erregeak ezin zuen dekretuz agindu.
 - Erregea ez da legearen gainetik egongo.
 - Parlamentuak bere botere indartzen du gobernuaren gainetik.
 - Gobernua parlamentuak aukeratzen du, ez Erregeak.
 - Erregeak ezin parlamentua zuzenean disolbatu; lehen ministroak eskatu behar.
 - Gai ekonomikoetan parlamentuaren eskumenak indartu.
 - Lorden Ganbera: herentziaz edo erositako titulu nobiliarioarekin.
 - Komunen Ganbera: pixkanaka bere osaketa zabaltzen doa.

5) Demokrazia parlamentarioaren garaipena (1832-1945):

- Bozkarako eskubidearen zabalpen mailakatua Reform Act-etik (1832) aurrera: Gizonezkoena 21 urtetik aurrera 1918 eta emakumeena 1921.
- Corrupt Practices Act (1883): parlamentariaren bozken erosketarekin bukatzeko.
- Parliament Acts (1911 eta 1949): Komunen Ganbararen indartzea Lord-en Ganbararen aurrean. Lord-ak gai finantziarioen arauetatik kanpo. Gainontzekoetan betorako eskubidea bi urtez.
- Sistema bipartidistaren indartzea: hasieran, whigs eta tory-en artean, eta ondoren, laboristak eta tory-en artean.

6) Botere exekutiboaren gailentzea legegilearen gainetik (1945-...):

- Gobernuak protagonismo handiagoa hartzen du hainbat aldagaiengatik, besteak beste, gehiengo hautes-sistemagatik, gehiengo absolutuak dituzten gobernuak errazten dituenak. Commonwealth: munduko lurraldearen ia laurdena eta populazioaren herena.



Frantzia eta Erresuma Batuen arteko alderaketa demokratizatorantz (Tilly, 2007: 156-159):

Lurralde antolaketa:

- Frantziak lurralde osoa nabarmen zentralizatu 1789tik aurrera.
- Erresuma Batuan nazio ezberdinen integrazioaren lehia irekita.

Desberdintasun sozialen isolatzea:

- Frantzia: Sektore sozial ezberdinen lerrokatzea (nekazariak, burges txikiak, gremioetako langileak, ...) monarkia eta aristokraziaren aurka. Gatazka erlijiosoaren garrantzi txikia.
- Britainia Handia: Nekazal sektoreen garrantzia apala demokratizazio prozesuan; industriako langileena nabarmenago XVIII. Mendetik aurrera. Katoliko eta protestanteen arteko gatazka presente lau mendeetan zehar.

Hertsadura eta kapitalaren metaketa erlatiboki altua bietan.

Biak gaitasun altuko estatuaren bidea demokratizatorantz.

Laburbilduz, Frantziaren kasuan 'saltokako' (des)demokratizatorako bidea jorratu zen bitartean (demokratizazioa: 1789, 1830, 1848, 1871; desdemokratizazioa: 1799, 1851, 1940), Erresuma Batuan eskubide politikoaren zabalpen mailakatuaren eskutik eman zen.

ESTATU BATUAK

Ipar Amerika Estatu Batuak baino lehen:

- Zazpi Urteetako Gerra (1756-1763):
 - Eskala handiko edo mundu mailako lehen gatazka beliko bezala kontsideratzen da; gerra napoleonikoen aurrekaria.
 - Bi bando nagusi: Erresuma Batua, Prusia eta Portugal. Frantzia, Espainia, Austria, Errusia eta Suedia.
 - Zabalkunde koloniala 'berrantolatze' asmoa.
 - 1763an amaiera eman zitzaien 'Pariseko bakearekin'. Britainia Handiak Florida eta Kanada eskuratu.
- Ipar Amerika 13 kolonia baino gehiago.



Une garrantzitsuenak (De la Guardia, 2016: 15-40)

1) Iraultza garaia (1765-1776)

- Kultura politikoa: kolonietako errepublikanismoa vs metropoliaren monarkia.

- Gerrako eta Inperioaren zabalkunde gastuei aurre egiteko zergen igoeraren aurkako matxinadak 1765tik aurrera:
 - Jendarte zibil aktiboa: panfletoak, prentsa artikulak, kale liskarrak eta boikotak; batez ere, inportatutako produktuen aurka. Adibidez, tea; emakumeen inplikazioa.
 - Metropoliaren erantzun errepresiboak aldarri independentista piztu zuen.

- “Ameriketako interes komunak” eztabaidatzeko lehen Kongresurako deia (1774, Filadelfia):
 - 12 koloniek ordezkariak bidali zituzten; Georgia kanpo: Samuel eta John Adams, George Washington, ...
 - Adostutako neurriak (Declaration and Resolves):
 - Kolonien eskubideak berretsi.
 - Metropoliaren neurrien aurkako erresistentzia: produktu britaniarrei boikota.
 - Elkarte Kontinentalaren sorrera hartutako neurriak jendartean zabaltzeko.
 - Parlamentu britaniarrak koloniak “errebeldia egoera” deklaratu eta presentzia militarra areagotu.

- Bigarren Kongresurako deia (1775-1781, Filadelfia):
 - Bizitzen ari zen de facto-zko gerra egoeraren aurrean zer egin:
 - Metropoliarekin adostasunerako lehenengo saiakera eta gero gerra irekia ekidinezina bihurtu zen. Sortu behar zen ejerzito bateko buru bezala George Washington izendatu.
 - Aliatuak: BHren etsai ‘naturalak’ ziren herrialde borbonikoak (Frantzia eta Espainia) eta Herbehereak.
 - Eredutik berri bat diseinatu behar: independentziaren aldeko apustu garbia. EEBBtako Independentzia Aldarrikapena (T. Jefferson, 1776).

2) Kolonietatik estatu konfederatuetara:

- Estatuaren konstituzio berriak:
 - Karta kolonialen ordezkariak, estatu gehienek idatzizko konstituzio berriak erredaktatu zituzten. Hauek asanblada legegileek idatzi zituzten. Herritarren eskubideak zabaltzeko. Tiraniaren aurkako mugak jartzea helburu; kolonialismoaren erreakzio bezala. Botere legegilea sendotu, exekutiboaren aurrean. Gehienetan sistema bikamerala; oreka eta kontrol sistema sustatu.

- Marko politiko komun berria: Ordura arte marko komun bakarra II. Kongresu Kontinentala; botere oso mugatuak. Konfederazioaren Artikuluak (Dickinson): Burujabetza estatu bakoitzaren baitan. Estatu bakoitzak ordezkari bat; bakoitzaren biztanleria aintzat hartu gabe. Eskumen mugatuak: gerra zuzendu, bake akordioak sinatu, nazioarteko harremanak, ...; eskumen tributarioak estatu bakoitzaren esku. Estatu bakoitzaren onespena behar. 1777an onartu eta Konfederazioaren Kongresua sortu.
- Independentzia Gerra (1775-1783) eta bake akordioak:
 - Nazioarteko gerra (Frantzia, Espania eta Herbeherak inplikaturak; BHren aurka) eta gerra zibila (hainbat kolonien atxikimendua Erresuma Batuari).
 - Pariseko Bake Akordioak (1782-1783):
 - Britania Handiak kolonien independentzia onartu, baina bere eragiteko gaitasuna ziurtatu zuen eskumen lortu zituen (arrantza eta nabigazio eskubideak, ...).
 - Espainiak (La Florida) eta Frantziak (Santa Lucia) hainbat lurralde berreskuratu.

3) Konstituzio federala:

- Gerra osteko Epealdi Kritikoan (1783-1789) Konfederazioaren Artikuluen errebisio sakona bultzatu zen, Konfederazioaren ez-ohiko Kongresuan.
- Adostasuna: EEBBak estatuen federazioa izango zen, burujabetza federazioaren eta kideen artean konpartituz.
- Eztabaidarako gaiak:
 - Kamara kopurua: azkenean gaur egun ezagutzen dugun sistema bikamerala; ordezkariak eta lurraldeak.
 - Esklabotza: bateragarria al zen izpiritu errepublikarra eta esklabotza? Esklabo bakoitza pertsona aske baten 3/5en pisua.
 - Presidentetza: ikuspegi oso ezberdinak. Kontsentsua G. Washington-en irudiaren inguruan. Azken erabakia: eskumen zabalak, NNHH, aukeraketa ez-zuzena...
 - Emendakin sistema Konstituzioa eguneratzeko.
- Konstituzioaren berrespena (1789):
 - 13 estatuetatik 9k onartu behar.
 - Jarrera antifederalistak baretzeko Eskubideen Deklarazioa (Bill of Rights) Konstituzioan txertatu (lehen 10 emendakinak).
 - BHkoarekin alderatuz, honek arreta prozedura juridikoetan (epaimahai bidezko epaiketak, gizatasunik gabeko zigorraren debekua, ...). EEBBkoak, horretaz gain, bestelako askatasunak jaso (adierazpen, bilera, elkarte, erlijio, armak gainean eramateko, ... askatasunak).

4) EEBBEn lurralde zabalpena:

- Lousianaren 'erosketa' (1803): Thomas Jefferson-ek Napoleoni.
- Gerra anglo-estatubatuarra (1812): Kanadako hainbat lurralde eskuratzeko; BHren behin-betiko galera.
- Floridako konkista espainolei (1821).
- Mendebaldeko konkista: Herri indigenen kontra. Mendebaldeko hainbat lurraldeetan jada asentamentuak: frantziarrak (New Orleans, Saint Louis, Baton Rouge, ...), espainolak (S. Francisco, Los Angeles, Colorado, Nevada, ...), ...
- Mexikoren aurkako gerra (1846-1848): EEBBek hainbat estatu bereganatu (Texas, California, Arizona, ...).
- Sezesio Gerra (1861-1865): Lincoln-ek 1860an esklabotzaren abolizioa aldarrikatu zuen, nekazari oinarriko hegoaldeko estatuak matxinatuz (hasieran 7; gerora 11) eta Amerikako Estatu Konfederatuak sortu. 1865an unionistek gerrari bukaera eman.

ALEMANIA

Une garrantzitsuak (Sánchez-Medero, 2012; Martí y Hernández, 2006):

1) Inperio alemaniarraren aurrekariak:

- Sacro Inperio Germaniarra edo I. go Reich-a (962-1806): erreinu ezberdinen 'bilgunea' Habsburgotarren eskutik.
- Rhin-eko Konfederazioa (1806-1813):
 - Izaera federala.
 - Napoleonen inbasioaren ondorioz emandako modernizazioa: nobleziaren pribilegioekin bukatu, nekazarien emantzipazioa, zerga-sistema eguneratu, ...
- Konfederazio Germanikoa (1815-1866):
 - Errestaurazio monarkikoa: 39 estatu bildu Austriako Etxearen agintepean.
 - Tentsioa liberalismoarekin: Frantziatik etorriko 1830 eta 1848ko iraultza liberalen oihartzuna. Azken honen ondorioz, lehen parlamentu eta Konstituzioa; botere exekutiboa enperadorearen eskuetan.
 - Austria eta Prusiaren arteko tentsioa (Zazpi Asteetako Gerra, 1866): Prusia (Otto von Bismarck) Austriari gailendu (Iparraldeko Konfederazioa, 1867-1871); parlamentarismoaren aurkakoa. Gerra franko-prusiarra (1870-1871): inperioaren abiapuntua.

2) Inperio Alemaniarraren edo II. Reich-a (1871-1916):

- Izaera federaleko estatuaren sorrera: botere zentralak hainbat eskumen bere gain (NNHH, ...); Bundesrat-ak berretsi behar zuelarik.
- Bi figura nabarmen: Enperadorea (Kaiser) eta Kantzillerra.
 - Enperadorea (Hohenzollern): botere zabalak; tartean, Kantzillera izendatzea, gerra deklaratzeko eta ejertzitoaren kontrola.
 - Kantzillerra (Bismarck): gobernu eta ministroak izendatu; parlamentuari kontuak ez eskaini behar, baina Bundesrat-a zuzendu.

- Parlamentua:
 - Bikamerala: Bundesrat (lurraldeak) eta Reichstag-a.
 - Sufragio unibertsal bidez aukeratua.
- Joera autoritario nabarmena, baina masa kritiko burges baten faltan, hainbat babes mekanismo txertatzen hasten dira langileriaren matxinatzea ekiditeko: berdintasuna legearen aurrean, osasun arreta, pentsio planak, ...

3) Weimarreko Errepublika (1919-1933):

- Testuingurua:
 - Versailles-eko Hitzarmenak suposatutako iraina.
 - Zeinu ezberdinetako matxinadak (Azaroko Iraultza, Altxamendu Espartakista, Bavierako Kontseilua, ...); SPD eta zentroko indarren arteko aliantza hauek indargabetzeko, eskuin muturreko indar paramilitarren inplikazioarekin.
 - Muturreko indarren (ezker zein eskuin) goraldia.
- Konstituzio berriaren erredakzioa:
 - Herri burujabetza onartu, ordura arteko autoritarismoaren aurrean.
 - Presidentetza: 7 urteetarako, hautaketa zuzena eta eskumen handiak (tartean parlamentuaren desagitea, betorako eskubidea edo oinarritzko eskubideak eten.
 - Kantzillerrak (botere exekutiboa): presidentek izendatuta.
 - Parlamentarismo bikamerala: Reichstag eta Reichsrat.
 - Oinarritzko hainbat eskubide ekonomiko, sozial eta kulturalen aitortza, baina egikaritzea praktikorako zailtasun handiekin.
 - Parte hartze politikorako bide berriak: hautesleen 1/10ak lege proposamena edo lege baten atzerapena 1/20ak eskatuta.

4) Alemania nazia edo III. Reich-a (1933-1945):

- Nazien garaipen zabala (bozken %43,9a) 1933ko hauteskundeetan; Konstituzioa erreformatzeko nahikoa ez, baina berari gain egiteko lege erreformen abiapuntua. Lege Gaitzailea (1933):
 - Kantzilerria gaitu legeak legebiltzarretik kanpo egiteko.
 - "Alemaniaren interesen aurkako" alderdien legez-kanporatzea.
 - Kontzentrazio zelaien sorrera.
 - Konstituzioaren aurkako legeak egiteko eskumena Kantzilerriari.
- Ondorioz, sistema politikoan eraldaketa sakona eman zen:
 - Botere banaketa eta pluralismo politikoa desagertu zen.
 - Zentralizazio politiko eta ekonomiko nabarmena ematen da.
 - Zuzenbide Estatua ezabatzen da.

5) Bonn-eko Oinarritzko Legea (1949):

- Weimarreko Konstituzioaren hainbat atal emendatu:
 - Presidentearen eskumenak mugatu, gobernuaren mesedetan, erantzulea parlamentuaren aurrean. Ordezkaritasun funtzioak, nagusiki.
 - Legebiltzarra erdigunean: Kantzilerria izendatu eta gobernuaren jarduna kontrolatu.

- Eskubide subjektiboen zerrenda. Lehenetsunezko izaera: legegileak ezin hauen aurkako legerik onartu ('betierekotasun klausula'; 79.3 art.).
- Konstituzioa aldatzeko zailtasunak: bi kameren 2/3ak.
- Printzipio kooperatiboa: federazioa eta landerren artean.
- Alemaniaren zatiketa: Alemaniako Errepublika Federal (DFR) eta Alemania Errepublika Demokratikoa (DDR).

6) 'Bateratzea' (1989):

- Testuingurua:
 - Brézhnev Doktrinaren indargabetzea Gorbachov-en eskutik.
 - Hungariak Austriarekin mugak zabaldu.
 - "Asteleheneko mobilizazioak" DDR-n, besteak beste, mugikortasun askatasunaren alde.
 - Berlingo Harresiaren erorketa (1989ko azaroaren 9a).
- Trantsizio politikoa:
 - 'Mahai Borobila': DDRko oposizioko eta DFRko gobernuaren arteko bilera sorta. Adostasunak: hauteskunde askeak deitu eta Stasi-ren disoluzioa.
 - 'Alemaniako Aliantza'-k (CDU) irabazi eta DFRrekin negoziazioak erraztu. Bi parlamentuen (Volkskammer eta Bundestag) arteko adostasuna herritarren berrespenik gabe.
- Trantsizio ekonomikoa:
 - DDRko enpresen lehiakortasun txikia merkatu librean.
 - Batasun-moneta eta DDRko sektore publikoaren pribatizazioa.
- Ondorio sozial sakonak utzi zituen, egun hainbat aspektuetan 'bi Alemania' antzeman daitezkeelarik.

3. GAIA: GOBERNU SISTEMA PARLAMENTARISTAK, PRESIDENTZIALISTAK ETA SEMIPRESIDENTZIALISTAK

Gobernu sistema herrialde bateko sistema politiko zehatz bat ezaugarritzen duen funtsezko aldagaia da.

Gobernu sistemak botere politikoa nola banatzen den zehaztu behar duen irizpideari erantzuten dio: kontzentrazioa edo sakabanaketa.

Bi eredu nagusi daude: presidentzialista eta parlamentarista. Tartekoa: semipresidentzialista.

PRESIDENTZIALISMOA

- Hautaketa sistema zuzena (edo erdi-zuzena; adib.: EEBBak).
- Ez da estatu-buru eta gobernu-buruaren arteko bereizketarik. Presidenteak izendatzen ditu gobernukideak.
- Presidenteak eskumen politiko zabalak.
- Exekutibo eta legegilearen arteko harremana:
 - Presidenteak ezin du legebiltzarra desegin.
 - Legebiltzarrak ezin du presidentea bota; kontrol politikorako dituen ohiko bideetatik behintzat (Aguilera, 2000: 84). Impeachment-a: delitu larriengatik; ez da kontrolerako mekanismoa, izaera penaleko epaiketa politiko bat baizik.
 - Beraz, agintaldiak bururaino eraman ohi dira.
 - Botere exekutiboa autonomia da. Normalean ministroen kontseilua baino, gabinete bat osatzen da.
- Sistema honen izaera bikoitzak blokeoa errazten du.

Abantailak:

- Presidenteak legitimitate zuzena.
- Hautesleriaren aurrean zuzenean erantzule egiten du.
- Gobernu egonkorra sortu ohi ditu.
- Botere banaketa bermatuta dago.
- Gehiengoak artikulatzeko erraztasunak.

Desabantailak:

- Gehiengo ezberdinak sortu daitezke, gobernagarritasuna zailduz.
- Politikatik kanpoko pertsonai 'populistei' bide.
- Agintaldiak berritzeko zailtasunak.
- Botereen arteko gatazkak konpontzeko ez ditu bideak zehazten.
- Alderdi kopurua mugatzen ditu.
- Jendartea polizatu dezake.

SEMIPRESIDENTZIALISMOA

Ez dago erabateko adostasunik sistema honen ezaugarri zehatzen inguruan. Ezaugarri nagusi batzuk (Aguilera, 2000: 108-116):

- Botere exekutibo duala.
- Presidentearen hautaketa bozka unibertsal zuzenaren bidez, majority runoff sistema baliatuz.
- Presidenteak eskumen konstituzional zabalak.
- Presidenteak lehen ministroa izendatu eta ministro kontseilua zuzendu.
- Gobernua parlamentuaren aurrean erantzun behar du.
- Presidenteak legebiltzarra disolba dezake.

Ezaugarri hauetako batek bakarrik ez luke bere kabuz bakarrik sistema bat semipresidentzial egingo, baina guztiak beharrezkoak lirateke eredu honetaz hitz egin ahal izateko.

PARLAMENTARISMOA

- Burujabetzaren jabe bakarra parlamentua da.
- Estatu-burua eta gobernu-burua figura ezberdinak dira.
- Estatu-buruak eskumen mugatuak ditu; normalean sinbolo edota exekutibo eta legislatiboaren arteko moderatzaile funtzioa. Monarka edo presidentea izan daiteke; bigarrenaren kasuan, hautaketa zuzen (Austria, Irlanda, Bulgaria, ...) edo zeharkakoaren bidez.
- Exekutibo eta legebiltzarraren arteko harremana:
 - Elkarlana sistema bat osatzen du; hau ezean legegintzaldia arriskuan egoten da.
 - Legebiltzarrak exekutiboa baldintzatu dezake gobernu-burua kargutik kenduz.
 - Gobernu-buruak legebiltzarra disolba dezake.
 - Exekutiboaren kontrolerako bide ezberdinak daude (galdera parlamentarioetatik zentsura mozioetara).
- Gobernuaren erabakiak kolegiatuak dira (Gobernu Kontseilua) eta parlamentuaren kontrola gobernu osoarengan ematen da. Politikaren pertsonalizazioaren ondorioz, gobernu buruaren 'presidentzializazio' bat eman daiteke.

Estatu-burutzen aukeraketaren alderaketa sistema parlamentarioetan:

- Monarkia parlamentarioak:
 - Ez da estatu burua aukeratzeko. Adib.: Erresuma Batua eta Commonwealth-eko herrialdeak, Espainia, herrialde nordikoak, ...
 - Parlamentarismoaren garrantzia oso handia da, legitimitate demokratikoaren bizkarrezurra delako.
- Errepublikak parlamentarioak: Estatu buruaren aukeraketa zuzena edo zeharkakoa izan daiteke:
 - Zeharkakoa: estatu buruak ez du bozkaren legitimazio zuzenik; ondorioz, legebiltzarrak legitimazioa haundia. Adib.: Alemania edo Italia.
 - Zuzena: estatu buruaren legitimazio zuzenak arazoak sor ditzake gobernu eta legebiltzarrarekin. Kasu hauetan, semipresidentzialismoarekin muga lausotu egiten da. Adib.: Polonia, Finlandia, Portugal, ...


Abantailak:

- Legitimazio bikoitzen arazoa ekidin.
- Politaren 'pertsonalizazioa' ekiditen du.
- Exekutiboaren kontrol jarraituari bide ematen dio.
- Jendartearen errealitatea hobeto ordezkatzeko du.
- Izaera anitza duten jendarteetara hobeto egokitzen da.


Desabantailak:

- Presidentearen legitimazio zuzenik eza.
- Egonkortasun faltarako aukera handiagoa.
- Zatiketa politiko handia.
- Botere banaketa lausoa da.


CUADRO 3.1
Sistema de gobierno presidencial



Sistema de gobierno parlamentario



CUADRO 4.1
Sistema de gobierno semipresidencial



ERRESUMA BATUA: Parlamentarismoa

1) Konstituzioa:

- Ez du dokumentu bakar batek osatzen, baizik eta arau multzoa bezala ulertzen da:
 - Statute Law (Zuzenbide estatutarioa): ikuspegi historikotik, parlamentutik jaiotako arau estatutario multzoa: Carta Magna, Petition of Rights, Habeas Corpus...
 - Common Law (Zuzenbide komuna): bertan tribunaletako jurisprudentziak garrantzia handia du.
 - Constitutional conventions (Konbentzio konstituzionalak): askotan ez daude idatziak, beraz, ezin epaitegietara eraman bere ezbetetzea. Adib.: Erreginak ministro kontseiluaren aholkuari jarraiki jardun behar izatea.
 - Zuzenbide parlamentarioa eta bertatik eratorritakoa.
 - Koroaren prerrogatibetatik eratorritakoa: parlamentua disolbatu, gerra deklarazioak.
- Honek oinarrizko eskubideen inguruko ziurgabetasuna haunditzen dut, legebiltzarrak aldatu ahalko litzuzkeen heinean.
- Europar Batasunetik eratorritako zuzenbidea ez litzateke aplikagarria (edo desagertze bidean) Brexitik aurrera.
- Botere banaketa ahula da eta burujabetzaren subjektu nagusia parlamentua izan arren, exekutiboak praktikara eramaten du.

2) Koroa:

- Oinordekoak herentziaz finkatzen dira, nahiz eta parlamentuak baduen ondorengotzalerroa aldatzeko aukera.
- Ez da erantzulea, ez maila politikoan, zibilean edo penalean; ministro baten berrespena behar dute bere erabakiek.
- Prerrogatibarako eskubide eta bete-beharrak; beti ere, araudiaren mugen barruan.

Exekutiboari begira:

- Lehen ministroaren izendapena: lehen indarraren hautagaiak ez badu gehiengo osoa atertzen, alderdien arteko kontsulta egiten du.
- Ministroen izendapena: lehen ministroaren proposamenez.
- Harreman diplomatikoak: Indar Armatuak, nazioarteko hitzarmenak...

Legislatiboari begira:

- Legebiltzarra deitu edota disolbatu Lehen Ministroaren proposamenez.
- Ganberen legeak berretsi.
- Lord-en Ganbarako kideak izendatu.

Judizialari begira:

- Justizia bere izenean administratzen da.
- Epaileak izendatu edo kargugabetzea, bi ganbarek horrela eskatzen badiote.
- Graziarako eskubidea.

Beste eremu batzuetan: Eliza Anglikoaren burua eta Commonwealth-eko burua.

3) Parlamentua:

Zazpi mende luze dituen tradizio politikoa.

Sistema bikameral asimetrikoa (Parlaments Acts 1911 eta 1949): Komunen Ganbara (herritarren ordezkariak, nagusitzen joan dena) eta Lord-en Ganbara ('pertsonai handien' ordezkariak).

Lord-en Ganbara:

- Osaketa: lord espiritualak, oinordekizakoak (aristokratak), juridikoak eta biziartekoak.
 - Presidentetza Lord Kantzillerrak garatzen du; Lehen Ministroak izendatua, gobernuaren kidea eta botere judizialeko burua.
 - Blairren erreforma eta gero (2001), 1140etik 700 ingurura pasa zen eta horietatik 92 'bakarrik' hereditarioak.
- Funtzioak:
 - Legegilea: gai finantzioetan salbu; ekimen legegileak onartu edo atzera bota (gehienez urtebete).
 - Eztabaida sozio-politikoan eragin: prozesu legegilea baldintzatu dezake.
 - Gabinetearen kontrola: ez dago interpelaziorako aukerarik, ez zentsura mozioaren bidez, ez konfiantza mozioaren bidez. Baina Gabinetea derrigortua dago bere jardunaz informatzera eta azaltzera, bere kide batzuk bertako Lord-en Ganbaran dauden neurrian.

Komunen Ganbara:

- Osaketa: 650 diputatu: Ingalaterrak 533, Galesek 40, Eskoziak 59 eta Ipar Irlandak 18. Barruti uninominalak. Bost urteko agintaldia.
- Antolaketa:
 - Speakerra: ganbara zuzendu eta bere eztabaidak kontrolatzeko funtzioa.
 - Oposizioa: handiena den talde minoritarioa. 'Itzaleko gabinetea'.
 - Komizioak: 10-20 bitarteko kideez osatuak. Gai ezberdinak jorrazteko: gai konstituzionalak, lege proiektuak aztertzen dituztenak, gobernuari jarraipena egitekoak, ...
- Funtzioak:
 - Legegilea: gai finantzioen gaineko monopolioa (aurrekontuak barne). Gobernuak gehiengo izaten duenez, normalean honek bideratutako egitasmoak eztabaidatzera mugatzen da.
 - Gobernuaren kontrola: gobernukideak ganbarako kideak eta bere aurrean kontuak eman behar Horretarako bitarteko ezberdinak: inaugurazio edo aurrekontu eztabaidak, Public Accounts Committee, Question Time, ...

4) Exekutiboa:

Hiru maila nagusi:

- Kontseilu Pribatua (Privy Council): 400 kide inguru (ministro ohiak, oposizioko liderrak, goi eliz-gizonak, ...), Koroak izendatuta Lehen Ministroaren proposamenez. Funtzioa: aholkularitza batzorde bidez.
- Ministeritza edo gobernua (Government): 100 lagun inguru, Lehen Ministroak izendatuta; goi mailako administrazioa eta gobernua.
- Gabinetea (Cabinet): Lehen Ministroak aukeratutako ministro kopurua txikia (bertako gobernuaren baliokidea). Organo kolegiatua, parlamentuaren aurrean erantzulea dena.

Lehen Ministroa:

- Alderdi nagusiko burua eta gobernu burua.
- Gobernuko ministro guztiak izendatzen ditu.
- Parlamentua disolba dezake.
- Gobernua parlamentuari gailentzen joan zaizkio.

5) Botere judiziala:

- Auzitegi Gorena (The UK Supreme Court):
 - Historikoki Lord-en Ganbarak auzitegi gorenaren funtzioa bete du gai zibiletan eta penaletan. 2005eko erreforma eta gero, botere banaketan sakontzeko, Erresuma Batuko Auzitegi Gorena sortu zen (Eskoziarako salbu), 2009an martxan jartzen delarik.
 - Osaketa: Erreginak izendatutako 12 kide, Lehen Ministroaren proposamenez, botere judizialaren independentzia bermatzeari begira batzorde berezi batek aukeratuta.
- Apelazio Auzitegia (Court of Appeal): bi areto: penala eta zibila. Penalak Koroaren Auzitegiaren sententziak berrikusi ditzake. Zibilak Goi Auzitegiak (High Court of Justice) eta Konderritakoek (County Courts) ateratakoak.
- Koroaren Auzitegia (Crown Court): gai penalak.
- Konderrietako Auzitegiak (County Courts): garrantzia gutxiko gai zibilak.
- Magistratuen Auzitegiak (Magistrates Courts): gai penal arinak; bertako Bake Epaitegien baliokideak.

Jurisdikzio ezberdinak daude, arau ezberdinekin, nazioaren arabera.

ALEMANIA: Parlamentarismoa

1) Konstituzioa:

1949ko Bonn-eko Oinarrizko Legeak Weimarreko Konstituzioak planteatutako hainbat atal emendatu nahi izan zituen; batez ere, presidentearen aldeko botere desorekak (ikus 'Prozesu historikoaren' atala).

'Bateratzea' (1989):

- DDRn 'Mahai Borobilak' adostutako hauteskundeak eta gero, bertako parlamentuak (Volkskammer) bere 14 erregioak DFAko parte izatea onartu zuen (1990).
- Aldi berean, Bundestag eta Bundesrat-ean ekialdeko Alemaniako lurraldeen integrazioari bide eman zitzaion. Honek Bonn-eko Legearen artikulua baten moldaketa eskatu zuen, herrialdearen bateratzea bukatutzat emanez.
- Berlin hiriburu bezala izendatu zen berriro, Volkskammer-etik bere diputatuak Bundestag-era bidali zituen eta Stasi-ko artxiboak mendebaldera eramanez.
- Akordioak ez zuen herritarren berrespen zuzenik izan.

2) Legegilea:

- Sistema bikamerala (Bundestag edo Dieta Federal eta Bundesrat edo Kontseilu Federala), Bundestag-aren alde apur bat desorekatzen dena.
- Bi lege mota: batetik, bi kameren babesa behar dituztenak ezinbestean (lurralde gaiei lotutakoak), eta bestetik, Bundesratararen oneritzia ez balu Bundestag-aren gehiengo absolutuarekin aurrera egin dezaketenak; bigarren kasuan, Bundesrat-ak eten egiten du prozedura.
- Lege proposamenen gehiengoa gobernuaren eskutik (%75), baina bi ganberak ere bideratu ditzakete. Horrela bada, lehenengo Bundesratetik pasa behar; bi ganberetako baten iniziatiba bada lehenengo Bundestag-etik.
- Kontziliazio batzordea dago bi ganberen arteko desadostasunak bideratzeko.

Bundestag:

- Lurralde osoaren borondatea ordezkatzeko du.
- Osaketa:
 - Gutxienez 598 kide (kopurua aldatzen da emaitzen proportzionaltasuna mantentzeko). Agintaldia 4 urteetako da.
 - Kamararen presidentetza: eztabaidak moderatu, kudeaketa lanak, ...; Estatuko bigarren figurarik garrantzitsuenak.
 - Parlamentariak: talde parlamentarioetan bilduta baina ez diote beraien kontrol parlamentarioari men egin behar, nahiz eta alderdi diziplina egoten den. Normalean bi ardura izaten dituzte: Bundesrat-en bertan eta beraien landerrean.

- Eginkizun nagusiak:
 - Lege federalak egitea.
 - Gobernuaren kontrola. Zentsura-mozioa eraikitzailea izan behar da. Kantzillerrak ezin du parlamentua disolbatu. Berak konfiantza-mozioa galtzen du Presidenteak disolba dezake.
 - Kantzillera eta Presidenteak aukeratzea; Auzitegi Konstituzionaleko magistratuen erdia edota Auzitegi Kontuetako Presidenteak.

Bundesrat:

- Landerren borondateen ordezkaria; hauek Oinarrizko Legea baino zaharragoak dira.
- Osaketa:
 - 69 kide; lurralde bakoitzaren biztaliaren arabera banatuak (gutxienez 3, gehienez 6).
 - Ez dira zuzenean bozkatzen. Landerretako gobernuetako ordezkariak izaten dira. Ondorioz, osaketa aldatzen da landerretako hauteskundeen arabera.
 - Legeen bozketetan lander bakoitzeko ordezkariak beraien bozkek zentzu bakar batean eman ditzakete (alde, kontra edo abstentzioa), bestela beraien bozkek anulatzen dira. Hainbatetan landerretako gobernuak koalizioak direnez abstenitu egiten dira.
 - Ganbarako presidentea urtero aldatzen da landerren arabera.
- Funtzio nagusiak:
 - Legegilea: Gobernuak, bere proposamenak, lehenik ganbara honetan aurkeztu behar ditu.
 - Konstituzioaren aldaketek bozken $\frac{2}{3}$ ak behar dituzte.
 - Betorako aukera du lurralde-gaiei lotutako legeen tramitazioan; hauek gehiengo absolutua behar dute. Guztira legeen %60 inguru suposatzen dute (gainontzeko %40an Bundesratararen betoan Bundestag-ean gairitu daiteke gehiengo osoarekin). Konpetentzia konkurrente eta landerren exekuzio behar dituzten legez ari gara.

3) Exekutiboa:

Gobernu federala – Kantzillerra:

- Izendapena:
 - Kantzillerrak Bundestag-aren babesa behar du.
 - Lau urteko agintaldia.
 - Mozio zentsura eraikitzaile bidez kargugabetu daiteke.
 - Kantzillerrak ministroak Presidenteari proposatu, berak izendatzeko. Ministroek Kantzillerraren aurrean erantzuten dute (kargugabetzeko aukera); parlamentuak ohiko kontrolerako bideak.
- Funtzio nagusiak: Gobernuak inizatiba legegilea du (lege proiektuak, delegatutako legeak, ...); baita normatiboa ere (dekretuak).

Presidentea:

- Asanblada Federalak (Bundestag eta landerretako kideek) izendatua; lehen bozketan gehiengo osoz eta bigarrenengoan sinplearekin.
- Bost urteko agintaldia; behin bakarrik errepikatu dezake.
- Ezin du gobernuko, federazioko edo landerretako parlamentuetako kidea izan.
- Bere erabakiak kantzillerrak edo ministro federal batek berretsita;
 - Salbuespenak: Kantzillerraren izendapena eta hau ezin aukeratu edo konfiantza mozioa galtzearen ondorioz Bundestagaren disoluzioa.
- Funtzio nagusiak:
 - Kantzillerra proposatzen du: Bundestagak hirugarren bozkan ez badu onartzen bera disolbatu edo Kantzillerra zuzenean izendatu ahal izango du.
 - Estatu-buruen ohiko funtzioak: ordezkaritza, formalki ministroak kargugabetu Kantzillerraren proposamenez, nazioarteko hitzarmenen sinadura, ...

ESTATU BATUAK: Presidentzialismoa

1) Konstituzioa:

- 1789an Filadelfian onartutakoa.
- Moldaketa gutxi jaso ditu ordutik eta emandakoak emendaki bidez; zehazki, 27 dira onartutakoak (lehen 10ak 1789an bertan onartutakoak -Bill of Rights- jarrera anti-federalistak apaltzeko).
- Konstituzioaren erreformarako prozedura: bi kameren $\frac{2}{3}$ k eta ondoren estatuen $\frac{3}{4}$ k babestu behar. Estatuaren $\frac{2}{3}$ k ere proposatu dezakete, ondoren arestian aipatutako urratsak emanez.
- Hiru botereen banaketa zurruna (Alemania edo Erresuma Batuan ez bezala); Checks and balances edo 'kontrapisuen' sistema: botere legegileak eta exekutiboak legeak betatu ditzakete.
- Baita estatu zentrala (federazioa) eta federatutako estatuen artean ere.

2) Legegilea (Kongresua):

- Sistema bikameral simetrikoa: Ordezkarien Ganbara (House) eta Senatua. Ganbara bakoitzak bestearen legeak betatu ditzake.
- Eskumen garrantzitsuenak:
 - Legeak egitea: Bi kamaretako batean ordezkarri/senatari batek proposamena aurkeztu. Speakerrak zer batzordeetan landu behar den erabakitzen du; bertan presio taldeek eragin handia dute. Lehen House-an eta ondoren senatuan, gehiengo sinplez. Presidenteak betatzen baditu Kongresuak aurrera egin dezake $\frac{2}{3}$ ko gehiengoekin.
 - Aurrekontuak onartzea.
 - Gerra deklaratzeko.
 - Komisioak eratzea: legeen elaboraziorako, ikerketarako edo goi karguen izendapenerako.

- Impeachment prozesua abiatzen du, Komite Judizialaren aldeko ebazpena eta gero; azken honek kargugabetzeko froga nahikoak ote dauden ebatzi. Ondoren Senatura pasatzen da, epaitu egiten duena Auzitegi Goreneko buruak zuzenduta.
- Emendakin konstituzionalak onartu (bi kameren $\frac{2}{3}$), estatuetakoko legebiltzarren $\frac{3}{4}$ k berretsi baino lehen.

Senatua:

- Agintaldia: 6 urte; bi urtean behin senatuaren herena berritzen da.
- Kopurua: Bi senatari estatu bakoitzeko; guztira 100. Hautes-barrutia estatuak osatzen du, gehiengo sistema baten bitartez.
- Osaketa:
 - Ganbarako presidentea: EEBBetako presidente-ordea.
 - Gehiengoaren eta gutxiengoaren liderra: dagokion alderdiaren programa bururaino eramaten saiatzen da.
 - Gehiengoaren eta gutxiengoaren whip-a: bere funtzioa alderdiko diziplina mantentzen saiatzea da. Hautagaiak askotan ez datoz politikagintzatik, eremu liberaleko lanbideetatik baizik (abokatuak, kazetariak, ...). Horri gehitzen badiogu oso errotuak egoten direla bere distritoari (horregatik aukeratuak izaten dira), alderdi indiziplina gora egiten du.
- Eskumen propioak: Nazioarteko hitzarmenak berrestea.

Ordezkarien Ganbara:

- Kopurua: 435 ordezkarik. Ordezkarik bat 600,000 biztanleko (\pm).
- Agintaldia: bi urte (alderdi indiziplina indartzen du).
- Hautes-sistema: Distritoka aukeratuak; gehiengo sistema barruti uninominaletan.
- Osaketa:
 - Ganbarako Presidentea (spekerra): alderdi nagusiko ordezkarik.
 - Gainontzekoan senatua bezala.
- Eskumen propioak: Presidente-gaien arteko berdinketa ematen bada Ordezkarien Ganbarak aukeraten du.

3) Exekutiboa: presidentea eta gobernuak.

- Ez da presidente eta gobernu-buruaren arteko bereizketarik.
- Hautaketa-sistema:
 - 538 konpromisariok osatutako eskola baten bitartez.
 - Estatu bakoitzak: Ordezkarik Ganbararako ordezkarik kopurua + bi senatari (Columbiako distritoak 3).
 - Konpromisarioek hautagai batekiko konpromiso sendoa duten neurrian, zeharkako hautaketa sistema formala da.
 - Barruti bakarreko gehiengo sistema; irabazten duenak ordezkarik guztiak eramaten ditu (Maine eta Nebraskan ez da horrela).
- Agintaldia: lau urtekoa. Ordezkatua izan daiteke heriotza, desgaitasuna, dimisioa edo impeachment-agatik. Bitan aukeratuak izan daiteke.

Funtzio nagusiak:

- Estatu-buru bezala, nazioarte mailan EEBBak ordezkatzeko dituzte:
 - Enbaxadoreei harrera egin eta kontsulak izendatu.
 - Graziarako eskubidea (indultoak).
 - Nazioarteko hitzarmenak berresten ditu, baina Senatuak 2/3ko gehiengoarekin alde bozkatu behar du; baita gerran sartzeko edo ekimen militar bat abiatzeko (ez ordea, ezkutuko operazioetarako):
- Eremu legegilean:
 - Betorako eskubidea (lege osoarena, ez atalena), baina bi ganberen 2/3ekin gainditu daiteke.
 - Kongresuari 'aholkuak': ekimen legegilerik ez duen arren, arreta politikoa interesekoak dituen gaietan kokatu dezake.
 - Aurrekontu proposamena egiten du baina Kongresuaren babesa behar du.

Exekutiboan:

- Botere normatiboa (agindu exekutiboak edo dekretuak).
- Administrazio Publikoen zuzendaritza:
 - 150 agentzia edo departamentuen lanaren koordinazioa. Administrazioaren zabalpen honek botere delegazio handia eskatzen du, hainbatetan legislatzeko boteretik bereiztea zaila egiten delarik.
 - Ezin ditu guztien kontrol zuzena izan baina ezin du bertan gertatzen denaz desbinkulatu.
- Kongresuak onartutako legeak betearaziko direla bermatu behar du, baina hainbat legeen atal batzuk bertan behera utzi ditzake "bigarren betoaren" bidez (line-item veto), aurrekontuetan dagokion diru-partida ezabatuz Kongresuak berretsi behar izan gabe.
- Indar armatuetako burua da eta kanpo politikaren erantzulea.
- Konstituzioak ministroez hitz egiten ez badu ere, gobernu-burua da (idazkaritzak).
- Goi karguen izendapena:
 - Izendapen gaitasun altua: 5000tik gora. Goi mailakoek -600 inguruk-senatuaren berrespina behar dute, tartean Auzitegi Goreneko eta maila federaleko epaileena, bizitza osorako kargua dutenak baldin eta jarrera egokia badute (during good behaviour).
 - Normalean kargu hauek fideltasun altukoak izaten dira.

FRANTZIA: Semipresidentzialismoa

1) Konstituzioa:

- IV. Errepublikaren parlamentariaren egonkortasun falta: 12 urteetan 22 Lehen Ministro.
- V. Errepublikako Konstituzioa 1958an idatzia, Aljerren emandako krisiaren ondorioz, erreferendum bidez onartu zen. De Gaullen eragin nabarmena, ezkerregatik (sozialistak eta komunistak) oso kritikatu. Egun adostasun zabala du.
- Helburua: botere exekutiboa indartu eta parlamentarismoari mugak jartzea.
- Berrikuntza nagusiak: Bi itzulietako gehiengo sistema; gobernu sistema semipresidentzialista; eta legez arautu daitezkeen gaien zerrenda.

2) Exekutiboa: Presidentea

- Agintaldia: 5 urte; behin berriro daiteke.
- Aukeraketa sistema: Zuzena bozka unibertsal bidez, bi itzulietan.
- Funtzio nagusiak:
 - Lehen Ministroa aukeratu parlamentuaren berrespenik gabe ('parlamentarismo negatiboa'), baina parlamentuak kargugabetu dezake.
 - Ministroen izendapena Lehen Ministroaren proposamenez.
 - Asanblada Nazionala disolba dezake. Aldiz, Asanblada Nazionalak ezin du kargugabetu (traizioagatik ez bada). Senatua ezin du disolbatu.
 - Gobernua eta presidentea alderdi berekoak badira, azken honen boterea asko indartzen da. Bestelakoan 'kohabitazioa'.
 - Erreferendumak deitu ditzake: parlamentuak lege bati babesia ez badio ematen, herritarrengana jo dezake.
 - Legeak aldarrikatu behar ditu parlamentuak onartu eta 15 egunetara: Mitterrand-ek 1986tik 1988ra interpretatu zuen bazuela ez-aldarrikatzeko eskubidea ere.
 - Ez du betorako eskubiderik. Bakarrik atzeratu dezake Kontseilu Konstituzionalari lege baten inguruko ebazpena eskatuz edota parlamentuari eskatuz lege baten errebisioa onartu eta 15 egunetara.
 - Armada burua da (arma nuklearrak) eta kanpo politikaren arduradun nagusia (nazioarteko hitzarmenak, ...).
 - Kontseilu Konstituzionalaren kideen 1/3 bat izendatzen ditu.
 - Goi mailako funtzionarioen izendapena. Gobernu Kontseiluak berretsi behar du.
 - Graziarako eskubidea.

Gobernua:

- Presidenteak eta Lehen Ministroak zuzenduta.
- Sistema politikoaren elementu ahulenetakoa da kontrol bikoitza duelako: presidentea eta parlamentua.
- Osaketa: Lehen Ministroa, ministroak eta Estatu Idazkariak. Erabaki garrantzitsuetarako Presidenteak zuzentzen du, baina aukera dago presidentea gabe biltzeko, Lehen Ministroak zuzenduta.

3) Legegilea:

- Parlamentariak ezin dira gobernuaren parte izan.
- Sistema bikameral asimetrikoa: Asanblada Nazionala eta Senatua. Senatuaren papera zalantzazkoa estatu zentralista den neurrian.
- Parlamentuari mugak jartzen zaizkio:
 - Sesio mugatuak.
 - Gobernuak lege-dekretu bidez goberna dezake.
 - Parlamentuak gobernu gaitu dezake legeak egiteko.
 - Lege proiektuak normalean gobernutik datoz.
- Lege proposamenak kontseilu ezberdinetara bidera daitezke:
 - Kontseilu Ekonomiko, Sozial eta Ingurugirokoa: kontsultiboa, agente sozial ezberdinetatik osatua (enpresariak, sindikatuak, ...).
 - Estatu Kontseiluta: kontsultiboa; bideragarritasun juridikoa aztertzen du.
 - Kontseilu Konstituzionala: legeen konstituzionaltasuna kontrolatu.

Asanblada Nazionala:

- Agintaldia: 4 urte.
- Osaketa: 577 diputatu.
- Aukeraketa sistema: bi itzulietako gehiengo sistema barruti uninominaletan. Bigarren itzulira bozken %12,5 lortzen dutenak pasa daitezke.

Senatua:

- Agintaldia: 6 urte eta hiru urtean behin erdia berritzen da.
- Osaketa: 348 kide.
- Hautaketa sistema:
 - Ez-zuzena eskola berezi baten bidez, 150.000 hautesle inguruk parte hartzen dutena: udalerrri, departamentu edota erregioetako ordezkariak osatuta.
 - Barrutiak: departamentuak. Era proportzionalean (eserleku bat baino gehiago aukeratu behar badira) edo bi itzulietako gehiengo sistemarekin (hautagai bakarra).

BOTERE EXEKUTIBO ETA LEGEGILEAREN ARTEKO HARREMANAREN NEURKETA

Nola neurtu daiteke organo exekutibo eta legegilearen arteko botere erlatiboa? (Lijphart, 2015, 105-129)

Sistema parlamentarioetan, gobernu/gabinetearen iraupenari erreparatuz. Gobernu bat zenbat eta gehiago iraun, orduan eta gehiago gailenduko zaio legegileari; eta alderantziz.

Adierazlea: gobernuaren iraupena hilabeteetan neurtuta, bera osatzen duten alderdiei erreparatuta.

- Galdera: zerk ematen dio bukaera gobernu bati? Bi aukera: Gabinete bakar bezala hartu daiteke, bere alderdien osaketa ez bada aldatzen. Beste gertaera batzuk aintzat hartzea: hauteskundeak egotea, lehen ministroaren aldaketa edota gehiengo egoeraren aldaketa.
- Sistema (semi)presidentzialistetan zer? Lijphart-ek balorazio kualitatiboak egin, balore kuantitatibo diskrezionalak esleitzeko.

RELACIONES ENTRE EL EJECUTIVO Y EL LEGISLATIVO 131

TABLA 7.1. Duración media de los gabinetes, de acuerdo con dos criterios (en años), la media de estos dos valores y el índice de dominio del ejecutivo en treinta y seis democracias (1945-1996)

	Promedio vida gabinete I	Promedio vida gabinete II	Media de los valores I y II	Índice de dominio del ejecutivo
Costa Rica	4,74	3,88	4,31	1,00*
Estados Unidos	7,07	1,83	4,45	1,00*
Suiza	16,19	0,99	8,59	1,00*
Italia	1,28	0,99	1,14	1,14
Finlandia	1,31	1,18	1,24	1,24
Papúa-Nueva Guinea	1,57	1,57	1,57	1,57
Israel	1,69	1,48	1,58	1,58
Mauricio	1,95	1,63	1,79	1,79
Bélgica	2,29	1,68	1,98	1,98
Venezuela	2,82	2,62	2,72	2,00*
India	2,41	1,75	2,08	2,08
Portugal	2,32	1,86	2,09	2,09
Dinamarca	2,81	1,75	2,28	2,28
Islandia	2,78	2,17	2,48	2,48
Japón	3,85	1,28	2,57	2,57
Holanda	2,94	2,50	2,72	2,72
Alemania	3,60	2,03	2,82	2,82
Grecia	3,60	2,16	2,88	2,88
Colombia	4,74	2,23	3,48	3,00*
Irlanda	3,72	2,42	3,07	3,07
Noruega	4,22	2,11	3,17	3,17
Suecia	4,77	2,07	3,42	3,42
Nueva Zelanda	8,18	2,15	4,17	4,17
España	6,35	2,38	4,36	4,36
Luxemburgo	5,62	3,16	4,39	4,39
Canadá	7,26	2,54	4,90	4,90
Australia	8,28	1,84	5,06	5,06
Austria	7,42	2,53	5,47	5,47
Barbados	7,58	3,37	5,48	5,48
Francia	2,88	2,08	2,48	5,52*
Reino Unido	8,29	2,55	5,52	5,52*
Jamaica	8,56	3,42	5,99	5,52*
Trinidad	8,66	3,85	6,26	5,52*
Malta	10,09	4,32	7,21	5,52*
Bahamas	11,99	4,76	8,32	5,52*
Botswana	31,33	3,92	17,63	5,52*


* Estos valores del índice de dominio del ejecutivo (para los cinco sistemas presidenciales, Suiza y las cinco antiguas colonias británicas) difieren de los valores de los promedios I y II.
Fuente: basada en datos de Woldendorp, Keman y Budge, 1998; Banks, Day y Muller, 1997; Muller y Strøm, 1997; Strøm, 1990; Von Beyme, 1985; Keating's Contemporary Archives; y en datos facilitados por Octavio Amorim Neto.

RELACIONES ENTRE EL EJECUTIVO Y EL LEGISLATIVO 135

TABLA 7.2. Frecuencia y promedio de la duración del gabinete según los dos criterios (en años) de los cinco tipos de gabinetes, en treinta y una democracias parlamentarias (1945-1996)

	Medida I		Medida II	
	Número de gabinetes	Duración media de los gabinetes (en años)	Número de gabinetes	Duración media de los gabinetes (en años)
Mayoría mínima de un solo partido	45	8,01	142	3,00
Mayoría mínima de una coalición	71	3,28	107	2,41
Un solo partido minoritario	38	2,24	76	1,64
Coalición minoritaria	52	1,01	59	0,91
Coalición sobredimensionada	91	2,07	120	1,71
Todos los gobiernos	297	3,09	504	2,12

Fuente: Woldendorp, Keman y Budge, 1998; Banks, Day y Muller, 1997; Muller y Strøm, 1997; Keating's Contemporary Archives.




4. GAIA: LURRALDE ANTOLAKETA EREDU KONPARATUAK

Zer da lurralde antolaketa?

- Lurralde antolaketa politikaren beste adierazpen bat da; kasu honetan, lurraldearen egitura eta planifikazioarekin estuki lotuta dagoena.
- Lurraldearen antolaketa eta administrazioarako oinarrizko tresna da. Hau da, maila ezberdinetako bitartekoen (ekonomiko, politiko, sozialak, ...) banaketarekin lotuta dagoena.
- Normalean bitarteko horien banaketan tentsio (des)zentralizatzailea egoten da inplikaturako estamentu ezberdinen artean.
- Zerk bultzatuta: nortasun ezberdinak, autogobernu nahia, desoreka ekonomikoen zuzenketa, kudeaketaren eraginkortasuna, ...

ESTATU FORMAK Tipologia



FEDERALISMOA

Etimologia: faedus (paktua edo aliantza).

Definizioa: federalismoan gobernu jardunak gobernu zentrala (federala) eta erregionalaren (estatuak) artean banatzen dira. Gobernu bakoitzak azken hitza dauka dagozkion gaien gainean (Riker, 1975: 101).

Ezaugarri nagusiak (Watts, 2006):

- Bi mailetako (federala eta estatala) gobernuen erabakiek eragin zuzena dute herritarrengan.
- Maila federala egon behar du hiru botereetan (legegilea, exekutiboa eta judiziala); botere legegile eta exekutiboaren arteko banaketa konstituzionala; eta finantziario iturrien banaketa bat erabateko autonomia eremuak bermatuko dituena.
- Erregioen iritziak ordezkatzeko ganbara.
- Izaera gorena izango duen idatzizko konstituzioa, soilik federazioa osatzen duten unitateen babes maila handiarekin erreformatu ahal izango dena.

- Gobernuen arteko gatazkak ebartzeko dituen arbitroa (epaitegi edo erreferendum forma hartuko duena).
- Gobernuen arteko elkarlana erraztuko duten prozedura eta instituzioak, eskumenak konpartitu edo teilkatzen diren eremuetan.

Europako estatu federalak: Austria, Belgika, Suitza, Bosnia-Herzegovina, ...

Estatu federalak munduan: Kanada, EEBB, Brasil, Argentina, ...

AUTONOMISMOAREN EZAUGARRIAK ETA FEDERALISMOAREKIKO ALDEAK:

- Elkarre autonomoak ez dira subjektu eratzaileak; hau da, ez dira burujabetzaren jabeak.
- Botere legegile bakoitzaren eskumenen banaketa bi mailen artean hainbatetan lausoa da.
- Senatua ez lurralde-ordezkaritzarako eremu erreala.
- Ez da autonomia fiskalik (Kontzertu Ekonomikoa salbu).
- Ez dago ordezkaritza zuzenik Europako erakunde erabakitzaileetan.
- Ez dago erreforma konstituzionalik bultzatu edo bertan parte hartzeko aukerarik.

ESKUMENEN BANAKETA HAINBAT ESTATU FEDERALETAN

Konstituzioek hiru eskumen mota definitzen dituzte:

- Esklusiboak: Gobernu maila zehatz bati dagozkionak.
 - Abantailak: dagokion gobernuaren autonomia indartu eta ardura legegia argia litzateke (praktikan arazoak sortzen dira; ez direlako konpartimentu estankook).
 - Adib.: Suitza, Kanada, Belgika, ...
- Konkurrenteak: Bi gobernu mailek legistatu dezakete gai baten gainean.
 - Normalean maila federalean lege-markoak finkatzen dira eta estatuek garatzen dituzte.
 - Konstituzioan ekiditen da legistatu beharreko gai espezifikoek zerrendatzea (hori legean bertan); baina zuzenbide federala nagusitzea ekarri ohi du.
 - Adib.: EEBB, Australia, ...
- Residualak: konstituzioak aipatzen ez dituenak.
 - Aurretik independenteak ziren unitateak batzen direnean, estatu federatuei egokitzen ohi zaie (EEBB, Suitza, ...).
 - Aurretik batasuna bazegoen eta federalizazioa ondoren eman bada, normalean maila federalari egokitzen zaizkio (Kanada, India, ...).
 - Eskumen eskusibo eta konkurrenteen zerrendatze zehatza ez dagoenean (Alemania, EEBB, Austria, ...), epaitegien esku-hartzea ohikoagoa izaten da; normalean botere federalaren mesedetan.
 - Espainian, elkarre autonomikoen esku gelditzeko, dagokien estatutuetan aipatu behar dira.

Federazioaren ohiko eskumenak:

- Nazioarteko harremanak.
- Defentsa
- Ekonomiaren funtzionamendua eta moneta.
- Zerga nagusiak.
- Erregio-arteko garraioa.

Estatu federatuen ohiko eskumenak:

- Gizarte-gaiak (hezkuntza, zerbitzu sozialak, ongizatea, ...).
- Ordenu publikoa eta segurtasuna.
- Administrazio lokala.

Nazioarteko harremanak federatutako estatuen eskumenak mugatzeko baliatu izan da. Ondorioz, beraiei dagokien gaietan berrespen mekanismoak bilatu izan dira.

Hainbatetan, gai sozialetan, eskumena federatutako estatuena bada ere, finantziazio handia eskatzen duten gaiak direnez federazioaren parte hartzeari bide eman ohi zaio. Bi mailen arteko elkarlana areagotu behar da.

Eskumen legegile eta exekutiboen arteko harremana:

- Kointzidentzia:
 - Gobernu bakoitzaren autoritatea indartzen da bere legea betearaziko duela bermatzen duen heinean.
 - Bakarrik kointziditzen badu gobernuaren kontrol parlamentarioa egin daiteke.
 - Adib.: EEBB, Kanada, Australia, ...
- Maila federalean legistatu; maila estatalean exekutatu:
 - Gobernu federalari aukera ematen dio izaera uniformizatzaileko legedi asko aurrera ateratzeko, lekuanlekuko errealitatera egokituz.
 - Gobernu maila ezberdinen arteko lankidetzak handiagoa eskatzen du.
 - Adib.: Alemania, Suiza, Austria, ...

KONFEDERALISMOA

- Konfederazioetan parteek batasuna osatzen dute, baina burujabetzaren eta botere eratzaileragusia mantentzen dute.
- Bateratasuna mantentzen dute hainbat eremuetan: komertzioa, defentsa, moneta, ...
- Konfederazioak ez du zuzenbide konstituzional bateraturik; nazioarteko zuzenbidearen barruan tratatuen bidez arautzen da.
- Erabakiak aho-batekotasunez hartzen dira.
- Adibide 'zalantzarriak' (Watts, 2006): Benelux, Karibeko Komunitatea (CARICOM), Estatu Independienteen Komunitatea (SESBen ondorengoa)

ZER DA EUOPAR BATASUNA?

https://elpais.com/elpais/2014/03/05/opinion/1394047861_892553.html

Konfederazio baten elementuak:

- Hitzarmenen bidez arautua; ez Konstituzio bidez.
- Burujabetza estatuengan dago.
- Batasuna ez da 'suntsiezina'.


Estatu federal baten elementuak:

- Estatuaren integrazioarako helburua (Lisboako Hitzarmenaren 1. go art.).
- Erabakiak gehiengoz hartzerantz jotzen da.
- Europar Legebiltzarra bozka zuzen bidez aukeratu da.
- Batzordea osatzen duten estatuetatik geroz eta independenteagoa da.
- Integrazio juridikoa: Hitzarmenek funtzio konstituzionala betetzen dute, estatuaren konstituzioaren gainetik nagusituz.

ALEMANIA

Lurralde-antolaketa:

- Federazioa.
- 16 lander (3 hiri-estatuak).
- 22 erregio administratibo.
- 439 distrito.
- Mancomunitateak.
- 12.013 udalerri.



Konstituzioa; Bonn-eko Oinarrizko legea (1949):

- Burujabetza federazioa eta federatutako estatuaren artean banatuta dago. Landerrek ere badituzten beraien konstituzio propioak.
- Federazioak hainbat eskumen eskusibo ditu (73. art.): nazioarteko harremanak, defentsa, babes zibila, ...
- Eskumen konkurrenteek multzo handiagoa osatzen dute (74. art.): zuzenbide zibila eta penala, espetxeak, gai ekonomikoak eta laboralak, ...
 - Federazioak ez badu honen erabilera egin federatutako estatuaren esku gelditzen da, baina federazioak gai hauen gainean arautu badu bere legea nagusituko da. Horretarako lege federal baten "beharra" erakutsi beharko du.
- Eskumen erresidualak landerren aldekoak (70 art.): hezkuntza, nekazaritza, kultura, segurtasuna, ...

- Federalismo kooperatiboa:
 - Bi gobernu mailen artean, nahiz eta federazioak eskumen gehiago dituen (bertikala). Gainera, zuzenbide federala estatuen zuzenbideari nagusitzen zaio, eztabaida kasuan (31. art.).
 - Baina landerren artean ere, gai ezberdinetan beraien artean koordinatuz (horizontala).
- Lurralde antolaketa eredu: Debekatu egiten da lurralde antolaketa eredu aldatzea; hau da, federazioaren banaketa estatuetan (79. art.).
- Nazioartea: Landerrek badute nazioarteko hitzarmenak sinatzeko aukera, bere eskumenen barruan. Hainbat kasuetan, Landerretako ministroek EBko Kontseiluan parte hartu dezakete.
- Eskumen exekutibo eta administratiboak:
 - Gehienak landerren eskuetan daude, legeen exekuzioa nagusiki beraien esku geldituz.
 - Horrek burokrazia federala nahiko txikia eta landerretako handia izatea eskatzen du. Honek esfortzu ekonomiko handia eskatzen die landerrei.
- Finantziarioa:
 - Zerga gehienak gobernu federalak jasotzen ditu (%65 inguru). Zentralismo finantziarioa.
 - Jasotako zergen gastua: Federazioak %50, landerrak %37 eta gainontzekoa administrazio lokalak.

Konstituzioaren azken erreformak:

2006ko erreforma:

- Testuingurua: Merkelen lehen “koalizio handia” (CDU-CSU eta SPD).
- 60ko hamarkadatik aurrera eredu “federalista kooperatiboa” bultzatu zen; hau da, instituzio ezberdinen elkarlana bultzatu zuena (Bundestag/Bundesrat eta federazioa/landerrak).
- Eredu honek hainbat arazo sortu zituen, batez ere era ezberdinetako ekimenak (legegileak, ...) aurrera ateratzeko prozedura moteldu edota zailtzen zuelako.
- Erreforma honekin, Bundestag-aren oniritzia behar zuten lehen kopurua murriztu (%30-40). Landerren botere galera hau orekatzeko federazioak hezkuntzan eta funtzio publikoan eskumenak esleitu zizkien.

2017ko erreforma:

- Testuingurua: Merkelen bigarren “koalizio handia”.
- Bateratsetik (1989) landerren artean zeuden desoreka ekonomikoen finantziarioa eztabaidagai izan zen; batez ere, lander aberatsenen (Baviera, Baden-Wuttemberg, ...) kritikak.
- Erreformarekin lander pobreenen (ekialdekoak) finantziarioa federazioaren esku; eta trukean hezkuntzan, autopistetan edo zergen kudeaketan eskumenak bereganatu.

Orokorrean uniformizaziorako joera antzematen da.

ERRESUMA BATUA

Commonwealth:

- Lurralde-eremua munduaren ia 1/4 eta populazioaren 1/3; 53 estatu.
- Estatu-burua partekatu arren, herrialdeak eta gobernuak erabat banatuta daude.
- Helburua: eremu politiko eta ekonomikoan elkarlana; baina ez du Koroarekiko aparteko menpekotasunik suposatzen.

- “Jatorrizko” nazioak: Ingalaterra, Eskozia, Gales eta Ipar Irlanda.
- Bere lurralde-antolaketak izaera paradoxikoa du: badago bere izaera plurinazionalaren aitortza, baina bere eskumenak dezentralizazio administratibora mugatu nahi dira.
- Ez du izaera zentralista (Frantzia), baina ez da eredu federalista ere.
- Dezentralizazioa devolution bidez egiten da: delegatutako kompetentziak gobernu zentralarenak dira; honek Westminsterreko parlamentuaren nagusitasuna dakar eta edozein momentu kendu ditzake.
 - Jatorria EEBBetako koloniei delegatutako botereetan: ahalik eta botere handiena delegatu baina botere inperiala ahuldu gabe.
- Botere autonomoak sortu dira Eskozia, Gales eta Ipar Irlanda, bere alderdi sistema propioarekin baina dezentralizazio maila ezberdinekin.

Laboristen ahalegin deszentralizatzaileak:

70ko hamarkada bukaeran:

- Gobernuak dezentralizaziorako Liburu Zuria adostu Eskozia eta Galesentzat (Scotland and Wales Bill) baina parlamentuak atzera bota.
- Ondorioz, bi lege proiektu ezberdin aurkeztu (Scotland Bill eta Wales Bill) eta Westminsterreko parlamentuan onartu baina bi nazioetan erreferendumerak eramateko orduan porrota.
 - Eskozian: ‘bai’ %51,6; ‘ez’ %48,4, baina ez zen finkatutako langara iritsi: ‘bai’-k %40a.
 - Galesen: ‘bai’ %20; ‘ez’ %80.
- Devolution prozesuaren sinisgarritasuna erori.
- Horren bueltan kontserbadoreek (Tatcher) hauteskundeak irabazi eta dezentralizazio prozesu gelditu; are zentralizatu.

90ko hamarkada bukaera (Blair-ren eskutik):

- Estrategia ezberdina baliatu:
 - Galdeketara ez zen eraman Westminsterren aprobatutako lege bat, baizik eta Liburu Zuri bat.
 - Eskoziarrak parlamentu bat sortzearen eta zergak aldatzeko bere gaitasunaren inguruan posizionatu behar ziren. Galesen asanblada baten sorreraren inguruan.
 - Egun ezberdinetan bozkatu zuten.
 - Ez zen gainditzeko gutxieneko langa jarri.

- Emaizak:
 - Eskozian: ‘bai parlamentua’ %74,3 eta ‘bai zergak’ %63,5.
 - Galesen: ‘bai’ %50,30; ‘ez’ %49,69.
- Hiru hilabete beranduago gobernuak Westminsterreko parlamentuan Scotland Act eta Wales Act onartu zituen.

Ipar Irlanda:

- Home Rule (1920-1972):
 - Hasierako asmoa katolikoekin diskriminazioarekin bukatzea.
 - Gobernu antolaketa: LM, bere gabinetea (harremanak Londresekin), bi ganberatako parlamentua, ...
 - Eskumenak: bakea, ordenua eta gobernu ona bermatuko zituzten legeak; gainontzekoan Westminster oro-botereduna.
 - Baina 1922tik aurrera diskriminazioarekin bukatzeko neurriak indargabetu eta unionistak nagusitu.
 - 60ko hamarkadaren bukaeran emandako gatazkaren gordintzeak Home Rule indargabetzen du, zuzeneko gobernuari bide emanez (Direct Rule).
- Beste saiakera antzuak: NI Constitution Act (1973), Sunningdale Agreement (1973), Akordio AngloIrlandarra (1985), ...
- Downing Street-eko Deklarazioa: gobernu britaniarra eta irlandarraren konpromisoa ipar-irlandarren erabakia errespetatzeko. IRAren su-etena.
- Ostiral Santuko Akordioa eta Belfast-eko Akordioa (1998):
 - Asanblada eta exekutibo bana.
 - Bi komunitateen adostasunaren beharra gobernu osatu eta erabaki garrantzitsuetarako; gutxienez komunitate bakoitzeko %40aren beharra (cross community support).
 - Ipar eta Hego Irlandaren Kontseilu Ministeriala sortu; kooperazioa intereseko gaietan.
 - Konferentzia Intergubernamentala britaniar-irlandarra: transferitu gabeko gaien lanketa.
 - Gatazkaren ondorioei lotutako gaien kudeaketa zehaztu: giza-eskubideak, armagabetzea, presoak, ...
 - Etengabeko blokeoak ezagutu ditu 20 urte hauetan.

- Konpententziak:
 - Hiru mota:
 - Salbuetsitakoak: Koroa, hautes-araudia, nazioarteko harremanak, defentsa, nazionalitatea, ...
 - Erreserbatutakoak: lege penala, ordenu publikoa, emergentzia egoeren deialdia, ...
 - Transferitutakoak: aurreko biak ez direnak: osasungintza, zerbitzu sozialak, garapen ekonomikoa,
 - Ez dago oso argi salbuetsita eta erreserbatutakoen arteko diferentzia baina erreserbatutakoak transferitzera iritsi daitezke. Edozein kasutan, Westminsterrek botereak kentzeko gaitasuna; horrela egin izan du.
- Finantziarioa: Westminsterren menpekora (Ipar Irlandarako Funtz Egonkortua), bertako asanbladak bere banaketa erabaki dezakeelarik.

Eskozia (Scotland Act, 1998):


- Gobernu eta parlamentu autonomo bat sorrera aurreikusit.
- Eskumenak:
 - Zehazten ditu Westminsterren eskumen eskusiboak eta gainontzekoa bere gain hartzen du; eskumen erresidualen antzera (Retaining Status).
 - Westminster: Koroa, kanpo politika, nazioarteko harremanak, ...
 - Eskoziak: osasungintza, hezkuntza, garapen ekonomikoa, justizia, polizia...
 - Etorkizunean erreserbatuak dauden eskumenak bereganatzeko atea irekita mantentzen du. Hala ere, parlamentu britaniarrak arautzen badu gai baten inguruan eskoziarraren gainetik gailenduko da.
- Finantziarioa: Westminsterrekiko menpekora (Funtz egonkortua). Zergetan eskumen mugatua: errentaren gaineko zerga igo dezake Erresuma Batuko erreferentziarekiko.

Gales: Government of Wales Act, 1998:

- Ez du legeak egiteko eskumenik. Lege britaniarrak egokitzeko araudiak egiten ditu, hainbat gaitan: osasungintza, hezkuntza, zerbitzu sozialak, ...
- Gobernuak (LMk eta ministroek idazkari izaera) eta Asanblada Nazionalak izaera exekutiboa.
- Eskumenak: soilik transferitutako gaien inguruan arauak egin ditzake; betiere lege britaniarrak egokitzeko.
- Finantziarioa: erabateko menpekotasuna; Westminsterretik transferitutako antolatze aukera.

Ingalaterra:


- Westminster eta Whitehallen menpekoa.
- 8 erregioetan oinarritutako antolaketa + Greater London.
 - Erregioetan asanblada exekutiboak sortzeko proposamenak porrota jaso zuen XIX. Mende hasieran. Bakarrik London Handian egin zuen aurrera.
 - Honek eskumen administratibo mugatuak: planifikazio urbanistikoa, turismoa, garapen ekonomikoa, osasungintza, ...
- Gaitasun finantzierorik ez.
- Frantziako ereduaren antzeko baina ere asimetrikoan.



FRANTZIA

Ibilbide historikoaren garrantzia:

- Iraultzak pribilegioekin bukatzeko eta berdintasun egoera ezartzeko zuen nahiak eragina izan zuen lurralde antolaketa ereduari. Horrela monarkiaren aurreko 'burujabetza nazionalaren' kontzeptua zentzu zentralizatzailean ulertu zen; maila batean, indargabetu nahi eredu erreproduzituz.
- Lurralde antolaketaren oinarri berria departamentuek eta kantonamenduek osatu zuten.
 - Departamentuak (probintzien parekoak): Ez zuten oinarri historikorik, zonaldearen geografiarekin zerikusia dute eta bere kapitala departamentuko edozein partetik egun batean zaldiz iritsi ahal izateko irizpidearen arabera finkatzen da. Ikuspegi arrazionalista.
 - Komunak (udalerrak): Ordura arteko parrokiak ordezkatu zituzten. Kopuru altua.
 - Kantoiak (eskualdeen parekoak): Komunak bilguneak.
- Bi figura exekutibo nabarmen sortu ziren: alkatea (hasieran gobernu zentralak izendatuta eta XIX. Mendean zehar bozka bidez aukeratzen joan zena) eta prefektua (gobernu zentralaren ordezkaria).
- Herrialde osoa lurralde antolaketa unitate berdinez osatua; eskumen berdinekin eta organo deliberatzaile berdinarekin (herriarren ordezkariarekin osatutako Kontseilua).



Erregioak:

- 1982an sortuak, garapen ekonomikoa sustatzeari begira ‘garapen poloak’ bezala.
- 18 erregioetan banatuta 2014tik aurrera: 13 metropolitanoak, 5 itsasoz bestaldekoak.
- Ez dute autonomia legegilerik.
- Zeinek zuzenduta:
 - Kontseilu erregionala (organo deliberatzailea); 50 eta 200 kide artean, 6 urteetarako aukeratuak.
 - Presidente erregionala (organo exekutiboa): kontseilu erregionaleko kideen artean aukeratua
 - Kontseilu erregional ekonomiko, sozial eta ingurukoa (organo kontsultiboa); sindikatu, enpresari eta bestelako ordezkari sozialak osatuak.
- Eskumenak: garapen ekonomikoari lotutakoak (EBko funtsen kudeaketa, garraioa, ingurugiroa, ...)
- Hauteskunde-sistema:
 - Bi itzulietakoa: 1.a gehiengo absolutoz; 2.a bozken %10a baino gehiago atera dituztenak; zerrendak bateratzeko aukera bozken %5a baino gehiago atera dituztenen artean.
 - Proporzionala eta gehienengoena: lehen indarra eserlekuen %25arekin saritua; gainontzekoak proporzionaliki.

Departamentuak:

- 96 departamentu metropolian eta 5 itsasoz bestalde.
- Zeinek zuzenduta:
 - Kontseilu orokorra: 3 urtean behin erdia berritzen da.
 - Kontseiluko presidentea eta kontseilariak: soilik funtzio exekutiboak; 3 urteko agintaldia.
 - Prefektua: Estatuaren funtzioak departamentuan bere gain hartu, gobernuaren izendapenez. Bere lurraldeko araudiaren kontrol konstituzionala; erabaki guztiak komunikatu behar zaizkio.
- Eskumenak: zerbitzu publikoak eta ekintza soziala (laguntza sozialak, osasungintza, ikastetxeak, garapen lokala, ...).

- Distritoak (3-4 departamentuka): bakoitza bere subprefektuarekin.
- Kantonamenduak (40± departamentuka): departamentuetako hauteskundeen erreferentziazko barrutiak dira.
- Hauteskunde-sistema:
 - Kantonamendu bakoitzeko ordezkari bat hautatzen da.
 - Bi itzuli itzulitan: 1.a hautesleen %25 eta bozkatzaileen %50a; 2.a bozken %12,5 gainditzen duten alderdiak pasatzen dira.

Komuna:

- 35,529 (9± kantoi bakoitzeko): lurralde unitate txikienak.
- Bakoitza bere udal-kontseilu eta alkatearekin, 6 urtez aukeratuak.
- Eskumenak: herritarrengandik gertuen daudenak (urbanismoa, hezkuntza, ...).
- Mankomunitateak: komuna ezberdinen arteko elkarlana sustatzeko entitateak (zaborren bilketa eta kudeaketa, uraren kudeaketa, turismoa, ...).

Lurralde kolektibitateak orokorrean:

- Kudeaketa eta exekuzio eskumenak dituzte soilik.
- Horretarako erreglamendu normatiboak egin ditzakete.
- ‘Derogazio esperimentalerako’ eskubidea: gobernuari lege edo erreglamenduen behin-behineko derogazioa (gehienez 5 urtez) eskatzeko eskubidea.
- Finantziarioa: zerga bilketa nagusia Estatuari dagokio, nahiz eta entitate lokalek dagokien eremuko zergak jaso ditzaketen estatuak finkatutako muga barruan.

Itsasoz bestaldeko erregio eta departamentuak (bat egiten dute):

- 5 erregio: Mayotte, Guadalupe, Guyana, Martinica y Reunión.
- Metropoliari bezala legea aplikatzen zaie (egokitzapenak egon daitezke), baina eskumen propioak dituzte.

Itsasoz bestaldeko kolektibitateak:

- Polinesia Frantziarra (eskumen legegileak), San Pedro eta Miquelón, Wallis eta Futuna, San Martin eta San Bartolomé.
- Autonomia handiagoa; ez dute departamentuen status berdina eta ez dira EBren parte.

Sui generis kolektibitatea; Kaledonia Berria:

- Eskumen legegile zabalak: zergak, lan legeak, osasungintza, kanpo merkataritza.
- Azken erreferendumak: 2018 eta 2020an ezezkoak irabazi zuen baina aldea txikitzen doa. Hurrengoa 2022an.

Korsikako lurralde kolektibitatea:

- Gainontzeko erregioek baino eskumen gehiago; ez-legegileak.
- Zuzentzen dute:
- Kontseilu exekutiboa: funtzio exekutiboak; beste erregioetan Kontseilu Erregionaleko Presidenteak garatzen dituenak.
- Korsikako Asanblada (organo deliberatzailea): beste asanblada erregionaletan baino eskumen zabalagoak.
- Kontseilu ekonomiko, sozial eta kulturala (organo kontsultiboa).

Euskal Hirigune Elkargoa:

- Zerbitzuetako mankomunitate ezberdinen elkargoa da, departamentu ezberdinetako herriak biltzen dituenak (Pirineo Atlantikoak eta Akitania Berria).
- Kudeatzen dituen eskumen artean: ingurugiro gaiak, hainbat osasun zerbitzu, garapen ekonomikoa (turismoa), kultur gaiak, urbanismoa, ...

ESTATU BATUAK

Jatorri bikoitzeko federalismoa (federazioak eta estatuak burujabetza konpartitu eta hiru botereak dituzte); simetrikoa.

Lurralde unitate nagusiak:

- Federazioa:
 - Eskumenak konstituzioan zerrendatuta: kanpo politika, indar armatuak, nazioarteko eta estatuen arteko komertzioa, moneta, ...
 - Federazioa eta estatuen legeen arteko kontraesanik balego lehenengoa nagusituko litzateke.
- Estatuak:
 - Estatu bakoitzak bere konstituzioa du.
 - Burujabeak dira baina sezesiorako eskubiderik gabe.
 - Konpetentzia erresidualak: konstituzioan gobernu federalari egokitu ez zaizkionak. Hala nola, estatu bakoitzari dagokion zuzenbide publiko eta pribatua.
- Konderriak:
 - Funtzio nagusiak: estatuko gobernuari babes lokala ematea.
 - Ez dute autonomia fiskalik, nahiz eta estautentzat zergak bildu ditzaketen.
 - Eskumenak: etxebizitza, hezkuntza edo garraioa bezalako gaietan eskumen zabalak.
- Hiriak eta udalerrriak:
 - Eskumenak asko aldatzen dira estatu batetik bestera.

Finantziarioak:

- Federazioak eta estatuak, bakoitzak bere zergak sortu eta kudeatu. Gai berrien gainean edo jada zergatutakoen gainean.
- Beharrak dituzten estatuei laguntza federalak: categorial grants edo block grants.

Tribu burujabeak:

- Beraien legeak Estatuaren legeen gainetik daude eta soilik federaziokoaren azpitik.
- Erreserba indioak nazio autonomoak dira baina ez EEBBekiko independenteak. Bakarrik Konstituzioaren eta beraiei zuzendutako lege federalen azpitik.
- Bakarrik gobernu federalak jardun dezake beraiekin, ez federatutako gobernuak.
- Horrela, bakarrik Kongresuak eskumena du autonomia eta eskubide horiek mugatzeko, ez estatuaren kongresuek.
- Hitzarmen edo lege federal batean tribu indiar batek egin ezin duen zerbait era agerikoan esaten ez bada, bere burujabetza autonomoaren parte bezala ulertuko da eta bere irizpidearen arabera arautu ahal izango du.

SISTEMA FEDERALEN KONPARAZIOA ETA NEURKETA

Sistema federalen alderaketak lau ardatzen arabera egin daitezke (Requejo, 2008: 13-41):

1) Uninazionala-plurinazionala:

- Adierazleak: bereizgarri propioak dituzten nazioen presentzia, autogobernurako borondatea dutenak, alderdi-sistema propioarekin eta horren barruan, alderdi sezesionistekin.

2) Unitarismoa-federalismoa; federalismo konstituzional maila:

- Adierazleak: federatutako lurraldeak unitate eratzailerik bezala aintzat hartzea; autogobernuaren berme konstituzionala; konstituzioaren erreformarako lurraldeekin akordioak beharrezkoak izatea; dualismo instituzionala botere exekutibo eta legegilea; federalismo fiskala; bigarren ganbera parlamentu zentratean (ordezkaritza lurraldeetako instituzioen aukeraketatik eta eserleku banaketa lurralde irizpideengatik); bigarren ganbarak botere instituzionalekin; eskumen erresidualak federatutako unitateei; aldean arteko gatazkak ebartzeko dituen arbitroa; federatutako unitateen sezesiorako eskubidearen arauaketa.

3) Zentralizazioa-deszentralizazioa:

- Adierazleak: unitateen botere legegileak; botere exekutibo eta administratiboak; unitateen erabakitze gaitasuna nazioarteko harremanetan; deszentralizazio ekonomikoa.

4) Simetria-Asimetria:

- Adierazleak: botere banaketan funtsezkoa asimetria; bazterketa (opt-out) eta barneratze (opt-in) formulen arautzea.

			Número de unidades federadas/regiones			
Federaciones/Estados Regionales Uninacionales	Simétricas	Australia	6 + 2	Federaciones/Estados Regionales Plurinacionales	Simétricas	-
		Austria	9		Asimétricas	-
		Argentina	23 + 1		Bélgica	3 + 3
		Alemania	16		Bosnia-Herzegovina	2 (+ 1 + 1)
		Brasil	26 + 1		Canadá	10 + 3
		Estados Unidos	50 + 1		España	17 + 2
		Italia	21		Etiopía	9 + 1
		México	31 + 1		India	28 + 7
		Sudáfrica	9		Reino Unido	3
		Suiza	20 + 6		Rusia	89
Venezuela	23 + 1					
Asimétricas	-	-				

		Derecho de secesión
Federaciones Plurinacionales	Bosnia-Herzegovina	No
	Bélgica	No
	Canadá	Si*
	Etiopía	Si
	India	No
	Rusia	No
	Serbia-Montenegro**	Si**
Estados Regionales Plurinacionales	España***	No
	Reino Unido	No

* Derecho de Secesión de acuerdo con criterios federales (no unilaterales).
** Federación desaparecida por referéndum unilateral en Montenegro (2006).
*** Estado con elementos federales.

ANEXO 1. Grado de Federalismo Constitucional (escala de 20 puntos)

	ARG	AUSTL	AUS	BEL	BOSH	BRA	CAN	ETH	ALE	IND	ITA	MEX	RUS	SAF	ESP*	SUI	UK**	EEUU	VEN
Estados federados/regiones como unidades constituyentes (1)	1	1	1	0	1	1	1	1	1	1	0	1	1	0	0	1	0	1	0
Garantía constitucional del autogobierno (1)	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	1	0	1	1
Acuerdo de la mayoría de las entidades federadas/regiones (directo o indirectamente) para la Reforma Constitucional (1)	0	1	0	0	1	1	1	1	1	1	0	1	1	1	0	1	0	1	0
Dualismo Ejecutivo/Legislativo (2)	1,5	1,5	0,5	2	2	1	2	1	0,5	1,5	0,5	0,5	0,5	1	1	1	1,5	2	0,5
Dualismo judicial (1)	1	1	0	0,5	1	1	1	1	1	1	0	1	1	0	0,5	1	1	1	0
Dualismo fiscal (2)	1	1,5	0	1	2	1	2	1	1,5	1	0,5	0,5	1	0,5	0,5**	1,5	0,5	2	0
Cámara alta: nominación por parte de las instituciones de las entidades federadas/regiones (1)	0	0	1	0,5	1	0	0	0,5	1	1	0	0	1	1	0,5	0	0	0	0
Cámara alta: número de senadores independiente de la población de las entidades federadas/regiones (1)	1	1	0,5	0,5	1	1	1	1	0,5	0,5	0	0,5	1	1	0	1	0	1	0
Poderes de la cámara alta (2)	2	2	1,5	1,5	2	2	0	2	1,5	2	1	1	1,5	1,5	0,5	2	0	2	0
Poderes residuales (2)	2	2	2	0	2	2	0,5	2	2	0	0	2	2	0	0	2	2	2	0
Tribunal Constitucional/Supremo (2)	2	2	2	2	2	2	2	0	2	2	1,5	2	2	2	2	1,5	0	2	2
Nominación de jueces por las entidades federadas/regiones (2)	0,5	0	0,5	2	2	0,5	0,5	0	1	0	0,5	0,5	0,5	0	0,5	2	0	0,5	0
Derecho de secesión (2)	0	0	0	0	0	0	1	2	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
TOTAL	13	14	10	11	18	13,5	13	13,5	14	12	5	11	13,5	9	6,5	15	5	15,5	3,5


* Referido a las 15 CA del «regimen común» (País Vasco y Navarra, excluidas)
** Referido a Escocia

Poder legislativo entidades federadas/regiones (escala de 8 puntos)

Area	Puntuación	AG	AUSTI	AUS	BEL	BOH	BR	CA	AL	IND	ITA	MX	RU	SA	ESP	SUI	UK	EEUU	VE
Economía/Infraestructuras/Comunicaciones	(2)	1	1	0,5	1,5	2	1,5	1,5	0,5	1	0,5	0,5	0,5	0,5	1	1	0,5	2	0
Educación y Cultura	(2)	1,5	1,5	1	2	2	1,5	2	1,5	1,5	1	1	1,5	1,5	1	1,5	1,5	1,5	0,5
Bienestar	(2)	1	1,5	1	1,5	2	1,5	2	1,5	1,5	1	0,5	1,5	1,5	1	1,5	1	1,5	0,5
Asuntos Internos/ Penal/Civil Leyes/Otros	(2)	1	1	0,5	1	1,5	1	1,5	0,5	1	0	0,5	1	0	2	2	1	2	0,5
TOTAL		4,5	5	3	6	7,5	5,5	7	4	5	2,5	2,5	4,5	3,5	5	6	4	7	1,5

Grado de descentralización por países (escala de 20 puntos)

Area	Puntuación	AG	AUSTI	AUS	BEL	BOH	BR	CA	AL	IND	ITA	MX	RU	SA	ESP	SUI	UK	EEUU	VE
Poder legislativo	(8)	4,5	5	3	6	7,5	5,5	7	4	5	2,5	2,5	4,5	3,5	5	6	4	7	1,5
Poder ejecutivo	(2)	1	1	1,5	1,5	2	1	1	2	1	1	0,5	1	1,5	1,5	1,5	1	1	0,5
Política exterior	(2)	0,5	1	1	2	1	0,5	1	1	0,5	0,5	0	0,5	0	0,5	1	1	0,5	0
Descentralización económica	(8)	5	5	3	4,5	6	4	7,5	5	4,5	2	2	5	2	3,5	5,5	2,5	6	1,5
TOTAL		11	12	8,5	14	16,5	11	16,5	12	11	6	5	11	7	10,5	14	8,5	14,5	3,5



Ondorioak:

- Aniztasun nazionalaren aitortza:
 - Ia ez da existitzen edo ez da autogobernuaren arauketa bezain esplizitua (salbuespenak Errusia eta Etiopia).
 - Batasun federala nagusitzen da, bateratze federalaren gaineratik.
 - Izendapenaren garrantzia sinbolikoa eta politikoa.

- Autogobernua. Federalismo, deszentralizazio eta asimetria konstituzional mailak.
 - Federazio plurinazionalak: Ikuspegi konstituzionaletik asimetrikoagoak dira, nazio bakarrekoak baino. Deszentralizazio maila altuagoa erakusten dute. Hala ere, nazio bakarrekoetan baino federalismo maila uniformeagoa eta txikiagoa da; “defizit federala”.

- Asimetriarekiko ezinikusia gobernu federalen eskutik.

- Federazioaren gobernua partekatzea: “Konfiantza federalerako” baldintza:
 - Nazio gutxituei, bere berezitasunetatik, federazioaren gobernuan parte hartzea erraztuko duten prozedura eta arauak (2. ganbararen garrantzia, gobernu-artereko alde biko harremanak, ...).
 - Gutxiengo nazionalak gehiengoetatik babestuko dituzten prozedura eta arauak (opting in/opting out, betorako aukera, goi auzitegi-tako kideen izendatzea, ...).
 - “Kultur plurinazionala” edo “kultura politiko federala”.

- Sezessorako eskubidea:
 - Egungo ikuspegi politiko nagusiarekin haustura nabarmena suposatzen du, baina ez federalismoarekin. Kasuak: Kanada, Etiopia, Serbia-Montenegro, ...

5. GAIA: KULTURA ETA AZPIKULTURA POLITIKOAK

ZER DA KULTURA POLITIKOA?

“Kultura politikoa buruzagi politikoak bere erabakiak hartzeko moduak, arauak eta jarrerak dira, hala nola herritar arruntaren arau eta jarrerak eta gobernuarekiko eta gainontzeko herritarrekiko harremanak” (Almond eta Verba, 1970: 21).

Hau da, nazio bateko kideen arteko “objektu politikoekiko” “orientaziorako” irizpideak dira: Orientazio motak (Parsons eta Shils, 1951):

- 1) Kognitiboa: sistema politikoaren, bere rolen eta rol hauei dagokien aspektu politiko (input-ak) eta administratiboen (output-ak) gaineko ezagutza eta sinismenak.
- 2) Afektiboa: sistema politikoaren, bere rolen, emaitza eta abarrekoen gaineko sentimenduak.
- 3) Ebaluatiboa: objektu politikoaren gaineko epai eta iritziak.


Objektu politiko motak:

- 1) Egitura espezifikoa (legegilea, exekutiboa, burokrazia, ...).
- 2) Egitura horietako agenteak (erregeak, presidenteak, parlamentariak, administrariak)
- 3) Gobernuen printzipio eta erabakiak.

Objektu hauek sailkatu daitezke, segun eta “prozesu politikora” (input) edo “prozesu administratibora” (output) lotuta dauden:

- Prozesu politikoa: jendartetik sistema politikora doan eskaera korrontea.
- Prozesu administratiboa: gobernuaren autoritatearen irizpideak aplikatzen dituen.

Almond eta Verbaentzat, kultura politikoa garrantzitsuena input-aren orientazioaren presentzia/gabezia litzateke; hau da, zer objektu politikoetara zuzenduta dauden norbanakoak eta nola orientatuak dauden (orientazio mota).



KULTURA POLITIKO MOTAK

Eredu 'garbiak':

1) Parrokiako kultura politikoa:

- Input maila oso baxua dago.
- Ez dago egitura politiko espezializaturik.
- Ez dago sistema politikoaren kontzientziarik (kognitiboa) eta, ondorioz, ez da horretaz ezer espero.
- Adib.: tribu indigenak.

2) Menpekoaren kultura politikoa:

- Sistemarekiko harreman pasiboa dago.
- Sistema politikoaren inguruko kontzientzia politiko dago, baina ez norbera ez da parte hartzaile aktibo bezala irudikatzen.
- Badago orientazio kognitibo eta afektiboa, baina ez ebaluatiboa.
- Adib.: jendarte feudalak.

3) Kultura politiko parte hartzailea:

- Herritarrak sistema politikoaren input eta output-ekiko zuzenduta daude; ados edo kontra.
- Prozesu politikoan rol aktiboa dute.
- Hiru orientazio motak daude. Adib.: politikoki aktiboak diren jendarte demokratikoak.

KULTURA ZIBIKOA

Kultura zibikoa sistema demokratikoen berezko ezaugarria da, baina kultura politiko parte hartzailea eta kultura zibikoa ez dira gauza bera.

Kultura zibikoak demokrazietan parte hartzeko moduari erreferentzia egiten dio.

Kultura zibikoaren parte den eredu 'aktibo-arrazionalaren' ezaugarriak:

- Herritarra politikaren parte aktiboa izatea eta era arrazionalan eta ez irrazionalan jokatzeko espero da.
- Ondo hezita eta informatua dagoela suposatzen da, bere erabakiak interes eta printzipio kalkulatu baten arabera hartuz.
- Kultura eta egitura politikoak bat datoz.
- Baina pasibotasun politikorako, tradizionalismorako eta balio parrokiakiko joerak egongo direla asumitzen da, bera orekatuz.

KULTURA ETA SISTEMA POLITIKOAREN ARTEKO HARREMANA

Kultura politikoak sistema politikoaren egiturekin bat etorri daitezke edo ez.

Bat datorrena ezagutza politikoa zehatza eta afektua eta ebaluazioa aldekoak izatera joko lukeena litzateke. Ez du esan kultura parte hartzailea izan behar duenik, baizik eta herritarren eta sistemaren arteko funtzionatzeko modua sintonian egongo direla.

Bat etortzearen adibideak:

- Kultura parrokiakiala > egitura politiko tradizionalak.
- Menpekoaren kultura > egitura autoritario zentralizatua.
- Kultura parte hartzailea > egitura politiko demokratikoa.

ZER DA AZPIKULTURA POLITIKOA?

“Gobernu baten aspektu politiko eta administratiboetan zentzu bakar batean orientatuak dauden herritarren multzoak dira, baina egitura politikoarekiko ‘leialtasuna’ mantentzen dutenak” (Almond eta Verba, 1970: 44).

Adibidez: EEBB etako alderdi demokrata/errepublikanoaren alde ezkertiar/eskuindarra.

Hala ere, azpikultura hauek bere erreferentziazko kulturatik bereizi daitezke (hau da, egitura politikoarekiko bere leialtasuna hautsi) eta kultura politiko propio bezala egituratu.

- Adibidez: EEBB etako sezesio gerran konfederatutako hainbat estatuek egindakoa.

KONPARAKETA: ALEMANIA, ERRESUMA BATUA ETA ESTATU BATUAK (Almond eta Verba, 1963)

ALEMANIA “Axolagabekeri politikoa eta menpekoaren kompetentzia”:

- Sistema politikoaren ezagutza (orientazio kognitiboa) maila handia.
- Parte hartze politikoa anitza: Bozkatzailerik handia, asoziazionismo handia.
- ...baina pasiboa eta formala: Parte hartze horri bide emateko prozedura mugatuak, hauteskundeetatik harago.
- Orientazioa ‘menpekotik’ gertuago, ‘parte hartzailetik’ baino:
 - Arreta handiagoa prozesu administratiboan (output) politikoan baino (input).
 - Output-arekiko asebetetze maila altua, baina ez dago sistemarekiko lotura afektibo-sinboliko esturik.
- Balizko arrazoiak:
 - XX. mendearen bilakaera historikoa: bi mundu gerren galera, ezegonkortasuna eta konpromiso handia (Weimar), nazismoa, ...
 - Bere gertuko historiarekiko arnegazio maila bat.
 - Jarrera pragmatikoa, ezaxola eta kasu batzuetan baita zinikoa ere (Almond eta Verba, 1970: 483).

ERRESUMA BATUA “Kultura zibiko adeitsua”:

- Parte hartze rola oso garatua dago (sistema politikoarekiko parte hartzea, inplikazioa, ...), baina ‘menpeko adeitsuaren’ rolaren pisu espezifikoa inportantearekin. Hau da, gehiegizko errespetu eta moderazioak parte hartzea motelduko luke.
- Jarduera politikoa errazten duten bideak badaude.
- Hauteskundeekiko eta, orohar, sistema politikoarekiko konpromiso maila altua: Koroarekiko atxikimendu maila (‘God save the queen’), esaterako.

ESTATU BATUAK “Parte hartzeko kultura zibikoa”:

- Rol parte hartzaile oso garatua eta zabaldua, nahiz eta rol parrokiak eta menpekoek orekatu.
- Gai politikoekiko konpromisoa, kontzientzia errepublikanoa y eragin politikoaren hautematea.
- Asoziazionismo maila altua.
- Sistema politikoarekiko, gobernuarekiko eta hauteskunde prozesuekiko atxikimendu afektibo maila altua.
- Ez dago “arerio politikoarekiko erabateko errefusate bat” (Almond eta Verba, 1970).

ALMOND ETA VERBAREN EREDUARI KRITIKA

Mugak:

- Kultura politikoaren ikuspegi desarrollista (Geertz, 2003).
- Ikuspegi oso normatiboa: Jarraitu beharreko erreferentziazko eredu bat marrazten du, horretatik kanpo gelditzen diren ezaugarriak baztertuz.
- Politikaren ikuspegi erredukzionista, input eta output-en joan-etorrietara mugatuz.
- Maila globalean kultura politikoa baldintzatzen duten gai berriak agertu dira: Gatazka etniko/erlijiosoak, prozesu migratzaileak, genero rolen aldaketa, populismoen goraldia, krisi ekologikoa, ...
- Galdera nagusia: gaurkotasuna dute herrialde bakoitzari egokitzen zaizkion ezaugarriak?

6. GAIA: ALDERDI SISTEMA KONPARATUAK

ALDERDI POLITIKOAK

Etimologia: latinezko partire-tik (zatitu); osotasun baten parte.

Jatorriaren inguruko eztabaida zabalik: aitzinako Atenas, XVI. Mendeko gatazka erlijiosoak (katolikoak vs protestanteak), XVIII. Mendeko Erresuma Batua.

Definizioaren inguruko lehia: ikuspegi ‘maximalistagoak’ (baldintza gehiago jartzen dituztenak) edo ‘minimalistagoak’ (baldintza gutxiago).

Alderdi politikoen definizioen bilakaera:

DEFINICIONES CLÁSICAS Y CONTEMPORÁNEAS DE LOS PARTIDOS POLÍTICOS

Burke (1770)

Un partido es un cuerpo de hombres unidos para promocionar por medio de la unión de sus esfuerzos el interés nacional sobre la base de un principio concreto respecto del cual todos se muestran de acuerdo.

Downs (1985) [1957]

Una coalición de personas que persiguen el control del aparato de gobierno mediante medios legales (elecciones).

Duverger (1981) [1951]

El partido político es una comunidad de una estructura particular, que se caracteriza ante todo por las relaciones internas entre los miembros de la comunidad.

Epstein (1980)

Un partido es cualquier grupo aunque esté débilmente organizado y que persiga puestos de poder en el gobierno bajo una etiqueta.

Lapalombara y Weiner (1966)

Un partido es una agrupación duradera y estable que está articulada de tal modo que las organizaciones de carácter local tienen lazos regulares y variados con la organización nacional con una voluntad deliberada y consciente del grupo de conquistar, ejercer y conservar el poder político y que busca el apoyo popular para conseguir sus fines.

Madison (1787)

Un grupo de ciudadanos que o bien representando a la mayoría o a la minoría se unen y actúan por una pasión común, o interés, opuesto al de los derechos de otros ciudadanos o al agregado de intereses de la comunidad.

Sartori (2003) [1976]

Un partido es cualquier grupo político identificado por una etiqueta que se presenta a elecciones, con una orientación general y no particularista, y que puede colocar mediante estas a sus candidatos en cargos públicos.

Weber (1984) [1922]

Los partidos son formas de socialización que, descansando en un reclutamiento formalmente libre, tienen por fin proporcionar a sus dirigentes dentro de su asociación, y otorgar por este medio a sus miembros activos, determinadas probabilidades ideales o materiales (la realización de fines objetivos o el logro de ventajas materiales o ambas cosas).

Funtzioak:

- Ordezkaritza:
 - Funtzio nagusia.
 - Gutxi-asko homogenea den talde sozial baten interesak ordezkatzen dituzten bozeramaileak dira.
 - Interes hauek hautesle eta antolakunde hauen artean era interaktiboan sortzen dira; eztabaidagai handien aurrean beraien jarrerak laburbiltzen dituzten ideologiaren bidez.
 - Horrek jendartearen eskaera eta interes ezberdinak bahetzea; hainbatetan bera ere mobilizatuz.
- Elektorala:
 - Demokrazia ordezkatzaileetan alderdi politiko guztien helburua botere postuak lortzea da.
 - Aldiz, alderdi politiko guztiek ez dute hauteskundeetan parte hartzen. Adib.: ilegalizatutako alderdiak, soilik hauteskunde prozesu batzuetan parte hartzen dutenak, ...
 - Edozein kasutan, funtzio hau erabakigarria da alderdi politikoak bestelako antolakundeetatik ezberdintzeko balio duen heinean.
- Gobernuak osatzea eta politikak implementatzea:
 - Nahiz eta jarrera kontrajarriak egoten diren interes ordezkaritza eta implementatutako politiken artean: aginduak ez betetzea, biraketa politikoak, ...
 - Aldiz, funtzio hau ez betetzeak ez du alderdi politikoaren kategoria galtzea ekartzen.
- Koadroak erreklutatzea:
 - Funtzio instrumentala baina garrantzia handikoa, besteak beste, elite politikoa osatzeari begira.
 - Iraganean baino garrantzia txikiagoa duen funtzioa. Egun alderdiek ez dute beraien indarra afiliatu/militante kopuruaren arabera horrenbeste neurtzen, baizik eta bozka, bitarteko eta jendartean duten sarreragatik baizik; hala ere, honek bere garrantzia izaten jarraitzen du.
- Sozializazioa:
 - Jendarteari subjektuek politikan duten paperaren inguruko ikuspegi bat eskaintzen diote, eta dinamika eta instituzio politikoaren gaineko balore eta iritziak sortzeko balio dute.

Elkarlotuak dauden funtzioak dira hauek, maila analitikoan bereizi daitezkeenak, baina nagusitzen direnen arabera alderdi eta alderdi sistemaren gainean asko esaten digutenak.

Alderdi politiko motak:

1) Elite edo koadroena (Gunther eta Diamond, 2001):

- Ohikoenak II. Mundu Gerrara arte; alderdi britaniar eta frantsesak XIX. Mendean.
- Talde aparta edo 'kalitatezkoa', norbanakoen gaitasun eta estatusagatik. Alderdia liderrak dira. Gutxieneko antolakuntza egitura.
- Leialtasun pertsonalak, ez programatikoak.
- Autofinantziazioa pertsona ospetsu hauen eskutik.

2) Masena:

- XIX. Mende bukaerako industrializazio prozesutik aurrera nagusitzen joan ziren: jatorrian epealdi honetako Alemaniako sozialdemokrazia.
- Mobilizazioa oso garrantzitsua da, afiliatuen paper aktiboarekin. Antolakuntza egonkorra herrialde osoan, aparatuaren kontrol handiarekin.
- Ideologia eta programa politikoa funtsezkoak dira; sektore sozial batekin identifikatzen dira.
- Finantziaziorako ekarpen kolektiboak.

3) Catch all edo 'oro-harrapatzailea:

- XX. mendearen bigarren erdialdean ematen diren desideologizazio eta oinarri sozialaren galeraren dinamikak islatzen ditu.
- Hautesleen mobilizazio hauteskundeetan bilatzen du; antolakuntza-egitura minimoa hortik kanpo; 'hauteskunde-makina'; bitarteko teknologikoen garrantzia.
- Erreferentziazko talde oso ezberdinak.
- Oinarri ideologiko apala eta lidergo pertsonal indartsua.
- Finantziazioaren ikuspegitik, afiliazioaren garrantzi txikia; finantziazio publikoa agertzen da.

4) Kartel alderdia:

- Alderdi 'oroharrapatzailearen' aldaera.
- Estatua eta alderdia nahasi egiten dira; zaila bihurtzen da bat non hasi eta bestea non bukatzen den ezberdintzea.
- Politikaren profesionalizazioa oinarritzkoa da; gobernuaren aurpegia nagusitzen da.
- Finantziazio publikoa funtsezkoa bihurtzen da.

ALDERDI SISTEMAK

“Es el conjunto de partes (partidos) que interaccionan entre sí en un determinado contexto económico, social, político, jurídico con el que existe una relación mutua de influencia” (Sartori, 1976).

‘Elkar-ekintzaren’ (‘interacción’) ideia: ez dira nahikoa osatzen duten alderdien ezaugarriak aintzat hartzea, baizik eta beraien artean ematen diren elkar-ekintzei erreparatu behar zaie; hala nola, beraien testuinguruarekin duten harremanari.

Sistema politiko batean alderdi sistema ezberdinak elkar-bizi daitezke; maila ezberdinetako hauteskunde lehiak egon daitezkeen heinean.

Ikuspegiak (Bartolini, 1988):

- Genetikoa: alderdi sistemen sorrera cleavage-en arabera (Lipset eta Rokkan, 1967).
- Morfologikoa: alderdi sistemen formatuaz arduratzen da; adibidez, bere kopurua (Sartori, 1967).
- Konpetentzia: alderdien arteko hartu-emanak issue-en arteko distantziaren arabera aztertzen ditu (Schumpeter, 1942).
- Aurreko ereduak uztartzen dituzten eredu mixtoak.

Sartori-ren eredia (1976):

- Sailkapenerako oinarritzko bi irizpide:
 - Alderdi kopurua (1, 2, ≤ 5 eta $6 \geq$):
 - Zer alderdi ez dira kontatzen? Bi arau hauetakoren bat betetzen ez dutenak:
 - Koalizioetarako aukera: bere tamainaz harago, gobernu gehiengo baterako beharrezkoak izan daitezke.
 - Txantairako aukera: alderdien arteko lehiari eragin behar dio; batez ere lehiaren norabideari: zentripettoa edo zentrifugoa.
 - Bereizketa ideologikoa: moderatua edo polarizatua.
- Alderdi sistema motak:
 - Ez-lehiakorrak: Alderdi bakarrekkoa eta alderdi hegemonikokoa.
 - Lehiakorrak: Alderdi nagusikoa, alderdi-bikoa, pluralista moderatua eta pluralista polarizatua.
 - Noiz bukatzen da lehia?
 - “Aterio politikoei eskubide berdintasuna ukatu, ezintasunak ezarri, mehatxatu, ikaratu edo pentsatzen dutena adierazteagatik zigortzen zaienean” (Sartori, 2012[1976]: 264).
 - Lehia (joko araua) \neq lehiakortasuna (egoera zehatza; lehiarako maila egingarria).

Nola neurtzen da alderdi sistemen polarizazioa/moderazioa?

Polarizazioak alderdi politikoen arteko distantzia ideologikoari erreferentzia egiten dio.

Bera, kuantitatiboki neurtzeko bide ezberdinak daude:

- Adituen azterketak: Aztergaiak: liderren diskurtsoak, hauteskunde programak, babestutako legeak, ...
- Kokapen subjektiboa:
 - Dagokion alderdia eskala batean (normalean 0tik 10era) kokatzeko eskatzen zaio galdekatutakoari.
 - Subjektua: alderdiko ordezkariak edo hautesleak.
 - Alderdien pisua ponderatua edo ponderatu gabe (Sartori) egin daiteke.

SISTEMA LEHIAKORRAK

1) Pluralismo polarizatua:

- Alderdi kopurua: sei alderdi edo gehiago egon ohi dira.
- Alderdi antisistema garrantzitsuak.
 - ‘Antisistema’: erregimenarengan eragin deslegitimatzailea; tradizionalki alderdi komunista edo faxistak.
 - Bi mota: protesta edo ‘erotutakoak’ (enajenados).
- Oposizio bilateralak.
 - Oposizioa ez bakarrik gobernuari, baizik eta oposizioko alderdien artean.
 - Hauek elkarrekiko gertuago egon daitezke, gobernuarekiko baino.
- Zentroa (‘metrikoa’, ez ideologikoa) okupatua dago.
 - Ez dira dinamika bipolarrak, gutxienez hiru aldetakoak dira.
- Muturren arteko distantzia ideologiko handia.
- Bulkada zentrifugoak, zentripetoen aurrean.
 - Zentroa okupatua egoteak bera okupatzeko lehia etsiarazten du, eta alderdiek beraien erreferenteak muturretan bilatzea bideratzen du.
- Egituratze ideologiko kongenitua.
 - Garrantzitsuena ez da gai baten gaineko iritziz ezberdina, baizik eta bera ulertzeko era ezberdina.
- Oposizio ‘arduragabeak’:
 - Zentroa okupatua egoteak eta honek gobernatzeko ardura izateak, gobernatzeko aukerarik izango ez duten alderdiak beti egotea ekarriko du. Gobernatzen dutenak (‘arduratsuak’) zentro-ekzter edo zentro-eskuinekoak izango dira.
 - Gobernatzeko zenbat eta esperantza handiagoa egon, orduan eta ardura gehiago egongo da.
- ‘Supereskaintzako’ politika: Gehiegizko hitzemandak gobernatzeko ardura faltari lotuta.

2) Pluralismo moderatua:

- Alderdi kopurua: Hiru eta bost alderdi garrantzitsuen artean, bat ere ez gehiengo absolutuarekin eta ez da gutxiengoan gobernatzen koalizioa eratu badaiteke.
- Alderdi garrantzitsuen arteko distantzia ideologiko erlatiboki txikia.
- Koalizio egitura bipolarra, alternatiboak baina ez direnak zertan txandakatu behar.
- Lehia zentripetua.
- Zatiketa (alderdi kopurua) eta segmentazioaren (bereizketa ideologikoa) arteko harremana:
 - Joera orokorra: alderdi kopuruak gora egiten badu (zatiketa) eta alderdi antisistemak eta oposizio bilateralak badaude (segmentazioa), badago polarizatorako joera.
 - Baina alderdi kopuruak gora egiten badu, baina ez antisistemak, ezta oposizio bilateralak ere ('guztiak esparru berbera osatzen badute'), arrazoi etniko, kultural, nazional edo bestelakoengatik segmentatutako jendartea izango dugu; baina ez duena zertan polarizatua egon behar.

3) Bipartidismoa:

- Bi alderdi eserlekuen gehiengo absolutua lehiatzeko baldintzetan aurkitzen dira.
- Bi alderdietako bat gehiengo parlamentario nahikoa lortzen du.
- Alderdi hau bere kabuz gobernatzeko prest dago.
- Gobernu aldaketa aukera egingarria izaten jarraitzen du.
- Sartorik definizioa zentzu bikoitzean malgutzen du: a) alternantzia alderdi bakar batetik 'koaleszentzian' doazen bi alderdietara izateko aukera zabalik uzten du; b) barrutiaren maila sistema nazionalaren mailatik ezberdintzen du.

4) Alderdi nagusikoa:

- Alderdi berberak eserlekuen gehiengo beti eskuratzen du edo bere kabuz gehiengo erlatiboarekin era iraunkorrean gobernatzeko gai da.
- Zer da 'era iraunkorrean' Sartorirentzat? Hiru gehiengo absolutu jarraian, baldin eta hautesleria egonkortua ematen badu, gehiengo absolutuaren langa argi gaintitzen bada edo lehen eta bigarren arteko indarraren arteko aldea handia bada.

SISTEMA EZ-LEHIAKORRAK

5) Alderdi hegemonikoa

- Ez da lehia ofizialik onartzen botereagatik, ezta de facto ere.
- Beste alderdi batzuk existitzea onartzen da, baina bigarren mailako alderdiak bezala.
- Intentsitate ideologikoaren arabera bi azpi-mota: alderdi hegemoniko-ideologikoa eta alderdi hegemoniko-pragmatikoa.


6) Alderdi bakarra: Errepresio/hertsadura mailaren arabera motak:

- Unipartidista totalitarioa:
 - Nonahikotasun, mobilizazio eta kontrol monolitiko mailarik altuena du.
 - Oso ideologikoa eta indartsua.
 - Jendartean barneratze maila altua.
- Unipartidista autoritarioa:
 - Ez du ez ideologia, ezta mobilizatzeko gaitasun sendorik.
 - Bere kontrolerako gaitasuna boterearen ohiko bitartekoetara mugatzen da (judikatura, polizia, ...).
- Unipartidista pragmatikoa:
 - Legitimazio ideologikorik ez.
 - Interes ezberdinak barneratu eta gehitzera jotzen du.
 - Antolaketa malgua eta maila batean anitza.

CUADRO 27. Características de Estados de partido único por tipos y criterios

Criterio	Unipartidismo totalitario	Unipartidismo autoritario	Unipartidismo pragmático
Ideología	Fuerte y totalista	Más débil y no totalista	Sin importancia o muy débil
Coacción, extracción, movilización	Alta	Media	Baja
Políticas respecto de grupos externos	Destructoras	Excluyentes	Absorbentes
Independencia de los subgrupos	Ninguna	Limitada a los grupos no políticos	Permitida o tolerada
Arbitrariedad	Ilimitada e impredecible	Dentro de límites predecibles	Limitada

(I) Indicador: Número de partidos (fragmentación)	(II) Variables a) Ideología b) Segmentación	(III) Clasificación	(IV) Tipología	(V) Propiedades constantes	(VI) Propiedades variables	(VII) Otras posibilidades
Un partido (sin fragmentación)	Alta	Unipartidista Partido hegemónico	Totalitaria Unipartidista	Monopolio	Disminución de las capacidades coactivas-extractivas	
	Intensidad ideológica		Ideológica hegemónica			
Dos partidos (fragmentación escasa/igualada)	Baja	Bipartidista (formato)	Autoritaria unipartidista	Ninguna (o mínima) autonomía de los subsistemas		Bipartidista polarizada
			Pragmática unipartidista			
Tres-cinco partidos	Distancia ideológica o segmentación	Pluralismo limitado	Pragmática unipartidista	Autonomía de los subsistemas	Estructura bipolar: coaliciones alternativas	Pluralismo limitado, pero polarizado
			Pragmática hegemónica			
Más de cinco partidos (gran fragmentación)	Alta	Pluralismo extremo	Pluralismo limitado	Comunicación hacia arriba (expresión)	Multipolaridad: movimiento periférico	Pluralismo extremo, pero moderado (o semipolarizado)
			Pluralismo extremo			
Uno predominante (gran concentración desigual)		Cualquier formato	Sistema de partido predominante		Ningún movimiento	Escasa competitividad



Sartori ereduaren mugak (Mair, 1997):

- Ez daude bipartidismo kasu garbi edo 'puruak': Bipartidistatzat hartzen diren sistema gehienetan hirugarren alderdi batzuk parte hartzen dute.
- Gaur egun alderdi sistema gehienak pluralismo moderatuaren baitan kokatzen dira.
- Egun pluralismo polarizatuko alderdi sistematik apenas ez dago: Alderdi komunista tradizionalen gainbeherari lotuta. Aldiz, alderdi ultraeskuindarren goraldiak joera hau aldatu dezake.

6. GAIA: ALEMANIA, ERRESUMA BATUA, FRANTZIA ETA ESTATU BATUETAKO ALDERDI SISTEMEN ALDERAKETA

ALEMANIA

Bilakaera historikoa:

II. Mundu Gerrara bitarte: Weimarreko Errepublika (1918-1933):

- Pluralismo polarizatua: 8 alderdi politiko, muturreko alderdi antisistema indartsuekin (1932ko hauteskundeak: KPD %18a eta NSDAP %32a), ezegonkortasun instituzional handiarekin (14 kantziler 14 urteetan), ...

Nazismoa (1934-1945): alderdi bakarreko sistema totalitarioa.

II. Mundu Gerratik 1989ra: Alemaniaren zatiketa:

1) RDA: unipartidismo hegemonikoa: Alemaniako Alderdi Sozialista Bateratua -SED- (ekialdeko SPD eta KPDren bateratzearen emaitza).

- Alemania Demokratikoko Fronte Nazionalaren parte: Alemaniako Gaztedi Librea (FDJ), Sindikatu Libreen Federazio Alemaniarra, Batasun Demokrata-Kristaua (Berlingo Harresia eta gero CDUekin aliatu zena), Alemaniako Alderdi Liberal Demokratikoa (LDPD), Alemaniako Alderdi Nazional Demokratikoa (NDPD -klase ertainak-, Alemaniako Emakumeen Federazio Demokratikoa eta RDAko Elkarte Kulturala.
- Maila instituzionalean: Estatu Kontseilua (presidentetza kolegiatua), Ministro Kontseilua (exekutiboa) eta Herri-Ganbara (legegilea). Hauteskundeak lau urtean behin (1974tik aurrera 5 urtean behin) baina hautagai guztiak SEDeko kideak.

2) RFA: pluralismo moderatua:

- Egonkortasun handia eta moderazio politikoa:
 - Lehia zentripetua.
 - Gehiengo absolutua lortzen ez zenean koalizio egonkorrak alderdi nagusien artean: 1. eta 3.ena edo 1. eta 2.aren artean (1966-1969).
 - %5a bosta baino gutxiago lortzen duten alderdiak kanpo uzten dituen hauteskunde sistema.
- ‘Alderdi aliatuaren’ sistema demokrazia-kristauan: CDU eta CSU:
 - Baviera: lander nagusia, izaera kontserbadore eta katolikoa; elkarlan honek hegoaldeko estatuetan aliantza katolikoa eta iparraldekoetan protestantea ekarri zuen.
- Joera antisistemikoko alderdien instituzionalizazioa: Berdeen sarrera parlamentuan 80ko hamarkadatik aurrera (eta ondorengo gobernu gorri-berdea Schröderrekin; 1998-2005).
- ‘Bi alderdi eta bi erdiren’ alderdi sistema “sortze bidean” (Ware, 2004: 279).

ALDERDI NAGUSIAK:

CDU (Alemaniako Batasun Demokrata-Kristaua):

- 1945an sortua. Lehen eginkizuna: fakzio, interes konfesional eta enpresarial ezberdinak bateratzea, katoliko eta protestanteen artean 'batasun kristauaren' bandera pean.
- Ideologia: Kontserbadoreen eta liberalen federazioa (gainditu gabeko tentsioak), enpresa askatasunaren eta liberalismo ekonomikoaren defendatzaileak. Helmut Kohl-en agintalditik aurrera joera zentristagoak, ez horren kontserbadoreak, ekonomikoan liberalak eta europeistak nagusitzen joan dira.
- Kantzilleria federalak: Adenauer (1949-1963), Erhard (FDPrekin 1963-1966), Kiesinger (GroKo 1966-1969), Kohl (FDPrekin 1982-1998), Merkel (GroKo 2005-2009, 2013-2017, 2017-2021; eta FDPrekin 2009-2013).
- Ordezkaritza instituzionala: Bundestag 152/736; Europako Parlamentuan 23/96. Nagusitasuna nekazal inguruetan.
- Merkelen ondorengotzaren inguruko krisia: Annegret Kramp-Karembauerren dimisioa Turingiako polemika eta gero 2020an, Armin Lachset-en dimisioa 2021eko hauteskundeen emaitzengatik, ...

CSU (Babariako Batasun Sozial-Kristaua):

- CDUren lehentasunezko aliatua; hau ez da lander honetan aurkezten.
- Babariako nortasunaren defendatzailea: katolizismoaren garrantzia, kontserbadurismoa, euroeszeptizismo handiagoa, ...
- Ez da CDU bezain liberala (estatuaren parte hartzearen aldekoagoa) baina gai sozialetan kontserbadoreagoa.
- II. Mundu Gerratik hauteskunde guztiak irabazi ditu; koalizio gobernu bakarra FDPrekin 2008an.
- Ordezkaritza instituzionala: Bundestag 45/735, europar parlamentua 6/96, Babariako parlamentua 85/205.

SPD (Alemaniako Alderdi Sozialdemokrata):

- 1863an sortua (1890an bere egungo izenarekin).
- Ideologia: Europako alderdi sozialdemokrata nagusien ibilbide 'tradizionala': alderdi komunisten eszizioak XX. Mendearen hasieran (USPD eta Alderdi Espartakista), marxismoari uko egin eta sozialdemokrazioaren aldeko apustua II. Mundu Gerra eta gero (Goteborg-eko Programa, 1959) eta NATOren inguruko jarreraren berrikuspena.
- RDAn:
 - SPD eta KPDren arteko fusioak Alemaniako Alderdi Sozialista Bateratuari (SED) bide eman zion (1946), bertako Fronte Nazionalaren parte bezala gobernatu zuena.
 - Alemaniako bateratzea baino lehen AASB banatu zen, alde batetik, Alderdi Sozialista Demokratikoan (PDS), eta beste alde batetik, Alderdi Sozialdemokrata birfundatu zen, mendebaldeko bere bikotearekin afiliatuz.

- Kantziliertza federalak: Brandt (FDPrekin 1969-1974), Schmit (FDPrekin 1974-1982) eta Schroeder (Berdeekin 1998- 2005). Scholz?
- Beherako joeran zegoen Schroederren garaitik baina 2021eko hauteskundeetan joera aldaketa Scholz-en eskutik. Indarra Berlinen eta hiriguneetan.
- Ordezkaritza instituzionala: Bundestag 236/735, europar parlamentuan 16/96.

FPD (Alderdi Demokratiko Askea):

- 1948an sortua.
- Ideologia: Jatorrian Alemaniako liberalismoaren bi korronte nagusia barnebiltzen zituen: batetik, bat kontserbadore eta nazionalista baina laikoa, industria handiaren interesen inguruan biltzen zena, eta beste batetik, eskubide indibidualen eta erradikalismo liberalaren aldekoa.
- Hamarkadetan posizio pribilegiatua izan du, bi alderdi nagusietako batek gehiengoa lortzeari begira. Sozialdemokratekin norbanakoen askatasunen inguruan eta demokratikristauekin gai ekonomikoetan.
- Gobernu federaletako parte hartzea: CDU/CSUrekin (1949-56, 1961-66, 1982-98 eta 2009-13) eta SPDrekin (1969-82).
- Egungo ordezkaritza instituzionala: Bundestag 92/736, europar parlamentua 5/96. Indarra hirigune handietan.

Die Linke (Ezkerra):

- Fusio baten emaitza 2007an: Ezkerreko Alderdia (lehen PDS, era berean AASBren ondorengoa zena) eta Lana eta Justizia Soziala – Hautes Alternatiba (WASG).
- Ideologia: parlamentuan joera ezkertiarrena duena; ‘sozialismo demokratikoa’. Korronte ezberdinak ditu; komunismotik hasi eta zentro-ezkerreko alderdiekin elkarlana bilatzen duten posizio erreformistagoetara (SPD eta Berdeak).
- Orain arte alderdi guztiek maila federalean uko egin diote Die Linke-kin gobernatzeari; ez ordea landerretan.
- Bere ordezkaririk ezagunena Oscar Lafontaine izan zen, SPDko lehendakaria izandakoa eta Schroederren Ogasun Ministroa.
- Ordezkaritza instituzionala: Bundestag 39/736, europar parlamentua 5/96. Turingiako presidentetza du. Presentzia handiagoa ekialdeko estatuetan.



Die Grünen / Bündnis 90 (Berdeak / 90 Aliantza):

- 1970ko hamarkadaren erdialdean sortzen da talde eta ekimen herritar ezberdinen aliantza bezala, batez ere ‘jendarte mugimendu berrien’ ordezkaririk.
- Alderdi politiko bezala 1980tik aurrera. Hasieran ‘alderdi anti-alderdi’ bezala ikusiak izan ziren, RFAn indarrean zen alderdi sistema parlamentarioari uko eginez. Hamarkada horretako erdialdetik aurrera ‘purista’ eta ‘errealisten’ arteko desadostasunak hasi ziren.
- Ideologia: ‘ekologia politikoaren’ inguruan artikulatu dira; baita ‘ezkerreko liberalismo’, pazifismoa eta ingurugiroa babestuko duen ekonomia mixta baten inguruan. FDPren inguruko sektore bat erakarri zuten, eskubide zibilen eta feminismoaren defentsari loturikoa.

- 1993tik aurrera 'Aliantza 90'-ekin koaligatzen dira, Alemania ekialdeko izaera antikomunistako eta Harresiaren erorketaren inguruan mobilizatutako taldeek osatuta. 2008an Sarreko estatuan ezkerreko koalizio zabala ekidin zuten Die Linke-rekiko betoagatik, CDUren gobernuari bide emanez.
- 1998an gobernu federalean sartzen dira SPDren eskutik, eta Joschka Fisher, bere lider ezaguna, kantziler-orde eta Kanpo harremanetarako ministro aukeratzeko dute, Kosovoko gerran Alemaniaren esku-hartzea oso eztabaidatua izan zelarik.
- Azken urteetan zehar joera 'antisistemikoko' alderdiaren izaeratik 'status quo'-aren bisagra lana egitera igaro da, lander batzuetan CDUrekin gobernatuz
- Ordezkaritza instituzionala: Bundestag 118/736, europako parlamentua 21/96. Gorako joeran hiriguneetan krisi klimatikoaren inguruko kontzientziarioa tarteko.

AfD (Alternatiba Alemaniarentzat):

- 2013an sortua.
- Ideologia: bere hauteskunde programa euroaren bazterketan, herrialde periferikoen erreskate ekonomikoak arbuizatzen eta markora bueltan oinarritzen da, besteak beste. Eurozonaren indargabetze ordenatu eta mailakatu aldarrikatzen dute.
- 2015tik aurrera barne gatazkak sortu ziren joera moderatuko eta liberalismo ekonomikotik eta kontserbadurismo liberaletik gertuko alde baten, eta joera eskuindarrago baten artean, nazionalismo kontserbadore eta ultrakontserbadurismotik gertukoa. Bigarrena nagusitu zen 2016ko kongresuan, inmigrazioa eta islama bezalako gaietan zentratzeko.
- Ordezkaritza instituzionala: Bundestag 86/736, europar parlamentua 11/96. Indartsuago ekialdeko estatuetan.



FRANTZIA

Bilakaera historikoa:

IV. Errepublika (1946-1958):

- II. Mundu Gerra eta geroko hauteskundeetan, ezkerreko indarrak garaile (PCF lehen indarra) atera ziren eta boterearen deszentralizazioaren alde egin zuten sistema parlamentarista indarrean jarriz. Konstituzioak erreferendumean, aldiz, babes txikia izan zuen, kontrako indarrak indartsu ateraz; gaullistak eta 'poujadistak'.
- Ezegonkortasun politiko eta sozial handia: aldaketa ekonomikoei lotutako gatazka sozialak ('ekonomia tradizionala' vs industrializazioa), gerra kolonietan (Indotxina, Madagascara, Aljer, ...), ...
- Hauteskunde lurrunkortasuna krisi ekonomiko eta aldaketa sozialei lotuta.
- Sistema multipartidista polarizatua. Dinamika zentrifugoa.

V. Errepublika (1958-...):

- Botere politikoaren zentralizazioa aurreko ezegonkortasunaren aurrean; parlamentarismotik semipresidentzialismora. De Gaulle-n figura.
- Urteek aurrera egin ahala, moderaziorako joera erakusten joan zen sistema pluripartidista; 80ko hamarkadaren erdialdean FN agertu zen arte, Aljerreko Gerratik (1962) baztertuta izan zena.
- 'Bi tendentzia t' erdiko' sistema: ezkertiarak (PSF, PCF, RI eta ekologistak), eskuindarrak (gaullistak eta UDF) eta eskuin muturra (FN).
- 90ko hamarkadan zehar bost alderdi/korronte nagusi: RPF (neo-gaullistak, kontserbadoreak; 2002tik aurrera UMP bezala eta 2015tik aurrera LR bezala); UDF (zentro-esku; 2007tik MoDem bezala, 2016tik En Marché!-rekin koaligatua); PSF (zentro-ekerra); (neo)komunistak (izendapen ezberdinekin) eta FN (eskuin muturra; 2018tik aurrera RN bezala).

Alderdi nagusiak (egun Asanblada Nazionalean ordezkariak dutenak):

1) Zentro-eskuina:

La République En Marche! (En Marché!):

- 2016an sortuta Emmanuel Macron-en figuraren inguruan, PSFko kide ohia (2006-2009) eta Hollande-ren gobernuko ministroa (2014-2016).
- Ideologia: Lehen momentuan marko tradizionaletatik atera nahi eta zehar-lerroko antolakundea bezala aurkeztu nahi du bere burua. Ezker-eskuin bikoizketa tradizionalaren aurka agertzen da, aurrerakoi-kontserbadore dikotomiagatik ordezkatu nahian, lehenengoekin identifikatuz. Bere egungo gobernuak PRI, LR, PSF, MoDem, Berdeak eta EM!-ko kideak ditu.
 - Izaera europeista.
 - Bere kideen %41a zentroan kokatzen da, %34a zentro-eskuinean, %15a eskuinean eta %5a ezkerrean.

- Antolakuntza egitura ahula lurralde mailan, alderdia nahaspila ideologikoa bihurtuz.
- Ordezkaritza instituzionala: AN 308/577. Errepublikako presidentzia 2017tik (%45eko parte hartzearekin).

Mouvement Démocrate (MoDem):

- 2007an sortuta UDFren ondorengo bezala, François Bayrou-ren (Pau-ko alkate ohia) figuraren inguruan, Jacques Chirac-ekin (UMP) izandako desadostasunak eta gero.
- Ideologia: 'zentrista sozio-liberala'. Alderdi politiko hau, UDF izan zen bezala, oso europeista da, eta federalismo europarra defendatzen du.
- Ordezkaritza instituzionala: AN 42/577. Macron-en gobernuan hainbat ministro ditu.

Union des démocrates et indépendants (UDI):

- 2012an sortua, zentro-eskuineko alderdia bezala. Bere independentzia mantentzen duten alderdi ezberdinak osatuta, alderdien federazioa eratuz.
- Ordezkaritza instituzionala: AN 18/577.

2) Eskuina (gaullismoa):

Les Républicains (LR):

- 2015an sortua Jacques Chirac-en UMPren ondorengo bezala, 2012an Nicolas Sarkozy-k lehendakaritza galdu eta gero.
- Ideologia gaullista: atlantismoa, liberalismo ekonomikoa (aldaketa 80ko hamarkadaren hasiera eman zen) eta Europako eraikuntza.
- Ordezkaritza instituzionala: AN 113/577.

Divers droite (DVD):

- Joera eskuindarreko hautagaiak biltzen dituen korrontea baina inongo alderdietara atxikiak ez daudenak. Frantziako politika erregionalaren garrantziaren ondorioa.
- Ordezkaritza instituzionala: AN 6/577.

3) Zentro-ekerra

Parti socialiste (PSF):

- 1969an birfundatua.
- Europako gainontzeko alderdi sozialistek izan duten garapen ideologiko antzekoa.
- Ordezkaritza instituzionala: AN 314 eserkuetatik 31era (4.indarra).
- Gobernuak: 1982-1986, 1988-1993 (Mitterrand), 1997-2002 (Jospin) eta 2012-2017 (Valls). Presidentzia: Mitterrand eta Hollande.

Parti radical de gauche (PRG):

- 1972an sortua. Mitterrand-en hautagaitza babestu zuen.
- Ideologia: zentro-ekerra. PSFrekin hauteskunde aliantza mantentzen du, bere kideak honen zerrendetan sartuz.
- Ordezkaritza instituzionala: AN 3/577.

- Europe Écologie Les Verts (EELV):
 - 2010an sortua eta ANn ordezkari bakarrarekin.

Diverse Gauche (DVG):

- Inongo alderdietara afiliatuak ez dauden ezkerreko hautagaiak bertan biltzen dira. Beste hainbatetan alderdi bateko kideak dira, baina bere alderdiko hautagai ofizial bezala ez direnez aukeratzen beraien kabuz aurkezten dira, ondoren alderdira bueltatuz.
- Ordezkaritza instituzionala: AN 12/577.

4) Ezkerra

La France insoumise (FI):

- 2016an sortua Jean-Luc Mélenchon, 1976tik PSko kidea eta Jospin-ekin ministro izandakoa (2000-2002).
- Ideologia: ekosozialismo, sozialismo demokratikoa, ... V. Errepublika kritikatzeko du 'monarkia presidentziala' izango litzatekeen heinean; VI. Errepublikarako proposamena.
- Ordezkaritza instituzionala: AN 17/577.

Parti communiste français (PCF):

- 1920an sortua.
- Garrantzia historiko handia ezkerreko lehen alderdia izan zelarik (bozken %20 inguru) 60ko hamarkada bukaerara arte; gainbeheran 70ko hamarkadatik aurrera.
- Ordezkaritza instituzionala: AN 10/577.

5) Eskuin muturra:

Rassemblement National (RN):

- 2018ra arte FN; 1972an Jean-Marie Le Pen-en eskutik sortua eta zuzenduta, 2011an bere alabak, Marine, ordezkatu zuenera arte.
- Ideologia: eskuin muturra, nahiz eta zentro-eskuindarra bezala definitu bere burua. Gakoa 2002 urtea: 3. indarra legegileetan, PSF eta PCF aurreratuz, eta presidentzialetan 2. itzulira igaro zen.
- Ordezkaritza instituzionala: AN 8/577.

Debout la France (DLF):

- 2008an sortuta.
- Ideologia: gaullismoa, eskuin kontserbadorea, euroeszeptizismoa.
- Ordezkaritza instituzionala: AN 1/577.

6) Soberanistak eta autonomistak: (Régions & peuples solidaires hautagaitzan bilduak):

Bretaña eta Aurrerakuntza Mugimendua (UDB):


- 2010an sortua.
- Ideologia: zentro-ekzerra.
- Ordezkaritza instituzionala: 1/577.

Pé a Corsica koalizioa:

- Corsica Libera (FLN Cren ondorengoa), Femu a Corsica eta Partitu di a Nazione Corsa (aliantza autonomista moderatua); alderdi autonomista eta soberanistak.
- Ordezkaritza instituzionala: AN 3/577.

V. Errepublikako presidentziak

Epealdi batzuetan presidentziaren eta gobernuaren kolore politikoa ezberdina izan da, gobernabilitatea zailduz. Eguren (EM-LR), Jospin-en gobernuan (1997-2002), Balladurren gobernuan (1993-1995), Chirac-en lehen eta bigarren gobernuak (1974-1976, 1986-1988), ...



ERRESUMA BATUA

Bilakaera historikoa:

- EBko alderdi sistemaren jatorria 1688ko Iraultza Loriatsuko aurreko urteetan kokatzen da; Koroaren nagusitasuna aldarrikatzen zuten kontserbadore (tory-ak) eta parlamentuaren lehentasuna aldarrikatzen zuten liberalen (whigs) artean. Joera bikoitz hori denboran zehar egonkortzen joan zen, XIX. Mendearen bukaerara arte mantenduz.
- Alderdi politikoen egokitzapena bozka eskubidearen zabalpena:
 - 1832, 1867 eta 1884ko Reform Acts-ak: klase ertaineko, hiriguneetako eta herri-giroko gizonezko sektore zabaletara hedatu zen.
 - 1918ko Erreforma: gizonezko ia guztien eta 30 urtetik gorako emakumeen bozkarako eskubidearekin lehen hauteskundeak.
- Baina 1886 eta 1930 bitarte alderdi sistema britaniarra multipartidista moderatua izan zen, garai horretan eman ziren zatiketengatik. Abiapuntuan 1884ko erreformetan Irlandako nekazari katolikoei emandako bozka eskubidea:
 - Unionista liberalak: Alderdi Liberalaren 1886ko banaketa Irlandari gobernu autonomoa emateagatik.
 - Nazionalista irlandarrak: gobernu eredu aldaketa honek Irlandako alderdi nazionalistaren sorrerari bide eman zion. 80 parlamentariko talde sendoa, Alderdi Liberalaren gobernagarritasunerako gakoa zena.
 - Alderdi laborista: industrializazioaren eta klase kontzientziaren zabalpenari lotuta, 1900 urtean sortu zen pisu handia zuten sindikatu britaniarren eskutik.
- 1916an Alderdi Liberalean emandako zatiketak (nagusiki, kolonien inguruko eta Irlandaren autonomia legegilearen inguruko ikuspegi ezberdinengatik eman zena), alderdi sistema britaniarra funtsean hiru aldeetako izatea ekarri zuen, alderdi liberala, laborista eta kontserbadoreak osatua; 1931ra arte, 'lana-kapitala' cleavage-a nagusitzearen ondorioz, kontserbadore-laborista joera nagusitzen joan zenera arte.

II. Mundu Gerraz geroztik bost (+1) fase (Ware, 2004: 366-368):

- 1945-1958: fase bipartidista 'klasikoa'; liberalen gainbehera.
- 1958-1971: hirugarren alderdien goraldia (liberalak -1959- eta nazionalista irlandarrak eta eskoziarrak -1970-). Liberalen aldeko protesta bozka, kontserbadoreak zigortuz.
- 1971-1979: lurrunkortasunak gora; alderdi nagusien krisia egoera ekonomikoagatik.
- 1979-1987: 'eskuin berriaren' goraldia (Thatcher), laboristek barne arazoak kudeatzen zituzten bitartean (eskuineko banaketa: liberalekin aliatu zen Alderdi Sozial Demokrataren sorrera), kontserbadoreen aurkako bozka laborista eta aliantza berri horren artean banatuz.
- 1987-2015: laborismoak ezkerreara egin zuen biraketak ez zuen liberalen hirugarren indarraren papera baldintzatu, nahiz eta azken hauek soilik 1977-1979 eta 2010-2015 bitarte gobernuaren parte osatu.
- 2015-...: 2015an liberalak amildu egiten dira eta SNP hirugarren indar bihurtzen da. 2017ean kontserbadoreen gobernagarritasuna (May) ipar Irlandako unionisten eskuetan gelditu zen (DUP).

Alderdi nagusiak (Komunen Ganbaran ordezkariak):

Conservative and Unionist Party (tory edo kontserbadoreak):

- 1834an sortua Edmund Burke-ren pentsamenduari jarraituz. Legea eta ordenua ardatz duen ideologia erreforma moderatuko proposamenarekin uztartu nahian, beti ere klase ezberdinetako aukera bezala egonkortuz.
- II. Mundu Gerra eta gero, Churchill-en eskutik, Estatu 'ongilearen' izaera egokitzen zuen estrategia abiatu zuen, ekimen pribatuaren garrantzia alboratu gabe.
- 70ko hamarkada bukaeratik aurrera Thatcherren eskutik politika neoliberalak bultzatu ziren, estatua bere adierazpiderik txikienera mugatuz eta eredu keynesiarra desmontatuz.
- 1997ko John Majorren gainbehera eta lau gobernu laboristak eta gero (Blairren hiru eta Gordon Brownen beste bat) Cameron tory-ak posizio ultra-kontserbadore eta neoliberalenetatik ateratzen saiatzen da.
- 2014ko hauteskunde europarretan UKIPEk irabazi eta gero, Cameronek Brexit-aren inguruko erreferenduma bultzatzen du, emaitzen ostean dimitituz. Bere ondorengoaren dimisioa eta gero, Theresa May, eta Boris Johnson-en garaipena eta gero, berriro ere posizio ultra-liberalenak indarra hartzen dute.
- Ordezkaritza instituzionala: 365/650 KG.

Labour Party (laboristak):

- 1906an sortua Ordezkaritzarako Komite Laboristaren eskutik, zeina 1900 urtean sortu zen sindikatu ezberdinen bilera batetik, erreforma sozial moderatuen egitasmoa aurkeztuz. 1922an oposizioko lehen indarra bihurtu zen.
- 70ko hamarkada bukaeratik aurrera sindikatuen eragina mugatzen saiatu zen. Thatcherren aurrean boterea galdu eta gero (1979) eman zen erreakzio ezkertiarren aurrean, 'eskuin hegala' banatu zen, Alderdi Sozialdemokrata eratu.
- 80ko hamarkadaren erdialdetik aurrera 'Laborismo Berria' deiturikoa bultzatzen da, alderdi posizio zentristagoetara eramaten duena, merkatu ekonomiaren alde. Bere adierazpiderik nabarmenena Tony Blair (1997-2007) eta Gordon Brown-en (2007-2010) gobernuetan izan zuen.
- Jeremy Corbin alderdiko buru bihurtu eta gero, alderdiak berriro posizio ezkertiaragoetara egin zuen, Brexitaren inguruko bere jarrera kontraesankorrak, besteak beste, 2019ko hauteskundeetan atzera egitea ekarri zuen.
- Ordezkaritza instituzionala: 202/650 KG. II. Mundu Gerratik 16tik 6 gobernutan.

LibDem (liberalak):

- 1988an sortua Alderdi Sozialdemokrata eta Alderdi Liberalaren bateratzea bezala.
- Whigs britaniarren ondorengoak bezala ezagutzen dira.
 - Azken hauek John Locke-rekin batera liberalismo politikoaren sortzaileak bezala ezagutzen dira, demokrazia liberalaren, parlamentarismoaren eta monarkia konstituzionalaren arkitektoak.
 - 1859an Alderdi Liberala ofizialki sortu zen, whigs-en, erradikal britaniarren eta peelite-ekin batera.

- XX. mendearen hasierara arte indar politiko garrantzitsuenetariko bat bezala kontsideratzen zen, kontserbadoreekin batera. Alderdi laboristaren goraldiarekin batera, whigs-ak Erresuma Batuko hirugarren indarra bezala kontsideratuak izan dira, 2015ko hauteskundeak eta gero 57 eserlekuetatik 8ra pasatu baziren ere, bere lider Nick Clegg-en dimisioa behartuz.
- Ordezkaritza instituzionala: 11/650 KG. II. Mundu Gerratik bi gobernuen parte izan dira.

Scottish National Party (SNP):

- 1934an sortuta fakzio independentista ezberdinen bateratzea bezala.
- Ideologia: independentista eta sozialdemokrata.
- 2015eko hauteskundeetan Eskoziako 59 eserlekuetatik 56 lortu zituen, Komunen Ganbarako hirugarren indarra izatera pasaz. 2010ekoetan 6 bakarrik zituen. Egun 48.

Democratic Unionist Party (DUP):

- 1971an sortua.
- Ipar Irlandako alderdi garrantzitsuena da eta Erresuma Batuko bosgarrena Komunen Ganbaran.
- Ideologia: bere helburu nagusia Ipar Irlandako errealitate sozial eta kultural berezitua aintzat hartzea da, Irlandako Errepublikarekiko. Abortoaren eta ezkontza homosexualen aurkakoa. Euroeszeptikoa da eta Brexitaren aldekoa.
- Ordezkaritza instituzionala: 8/650. May-ren gobernagarritasun bere 10 ordezkariengan zegoen.

Sinn Féin:

- 1905an sortua.
- Ideologia: ezkertiarra eta Irlandaren bateratzearen aldekoa.
- Ordezkaritza instituzionala: 4/650.

Plaid Cymru (Alderdi galestarra):

- 1925an sortua.
- Ideologia: soberanista.
- Bere babes elektoralak hiztun galestarren nekazari eremuetan bildu da.
- Ordezkaritza: 2/650.

Social Democratic and Labour Party (SDLP):



- 1970an sortua. Ipar Irlandako alderdi garrantzitsuetako bat. Gatazka armatuak iraun zuen bitartean, alderdi abertzale bozkatuena izan zen baina IRAren su-etenetik aurrera, bozkak galdu ditu Sinn Féin-en mesedetan.
- Ideologia: sozialdemokrata. Alderdi Laboristarekin bat eginda; idatzi gabe hautes-akoridua.
- Ordezkaritza: 2/650.

Alliance Party of Northern Ireland:

- 1970an sortua hainbat unionisten eskutik, Terence O'Neill-ek bultzatu nahi zituen erreformen inguruan, komunitate katoliko eta protestanteen ezberdintasunak gainditu nahi zituenak.
- Ideologia: liberal. LibDem-ekin loturak.
- Ordezkaritza: 1/650.

Green Party of England and Wales (Berdeak).

EVOLUCIÓN DEL VOTO



ESTATU BATUAK

Bilakaera historikoa (Ramos, 2016):

Aurrekariak:

- Independentzia Gerra osteko lehen bi hauteskunde deialdiak (1788 eta 1792) George Washington-en figuraren babesaren inguruan eman ziren, ezarri gabeko alderdi sistema batekin lehen deialdian eta lehendakaritza-ordearen inguruko bataila batekin bigarrenean, Federalista (batasunaren aldekoak) eta DemokrataErrepublikanoen artean (federazioaren aurkakoak) bigarrengoan.
- Washington-ek Errepublika bat sortu nahi zuen, non bertutea boteretik jendartera barreiatuko zen, fakzioen arriskuez ohartaraziz, izan ere “Batasunaren eraginkortasunerako eta bera mantentzeko, gobernu bateratu bat ezinbestekoa den”, “aldean arteko inongo aliantza, ordezkio egokia ezin izan daitekeelako”.
- Era berean, Washington-entzat “fakzio baten nagusitasuna beste batekiko, bere horretan despotismo izugarria” delarik.

Lehen alderdi sistema (1796-1816):

- Federalista (John Adams presidentea) eta Errepublikano-Demokraten (Thomas Jefferson presidente-ordea) arteko zatiketa, hiru gaien gainean:
 - Ekonomia: Banku Zentralaren existentziaren inguruan. Federalistak: aldekoak; errepublikarrak: kontra finantza-aristokrazia bezala ulertzen zutelako.
 - Kanpo politika: federalistak harremanak Erresuma Batuarekin normaltzearen aldekoak; errepublikanoak Frantziarekin.
 - Monarkia: errepublikanoek federalistak joera monarkikoekin ikusten zituzten. Gainbehera federalistaren urteak.

Bigarren alderdi sistema (1828-1856):

- Alde errepublikanoaren barruko banaketek alderdi Demokrataren sorrerari (Andrew Jackson) bide eman zioten, baina Jefferson-en balio errepublikanoak aldarrikatuz. Errepublikarrak (J. Q. Adams) beraien burua whig izendatzen hasi ziren, bere izaera anti-monarkikoagatik.
- Gizonezkoan bozkarako eskubidearen zabalpenaren aldeko whig-en apustuak, demokraten gainera nagusitzea ahalbideratu zuen. Aldiz, azken hauen Banku Zentralaren aurkako borroka hegoaldeko eta mendebaldeko behe klase antielitisten aldekoatasuna eman zien.
- Esklabutza eztabaida politikoaren erdigunean:
 - Demokraten banaketa antiesklabista (iparraldea) eta esklabista (hegoaldea).
 - Birfundazio errepublikanoa (whig) Abraham Lincoln-en eskutik (1860).

Hirugarren alderdi sistema (1860-1892):

- Gerra zibilak eta alderdi errepublikanoaren nagusitasunagatik markatuta, hegoalde segregazionistan errotutako alderdi demokrataren gainera.
- Iparraldearen garaipenak konfederatuen gainera herrialdea eredu federalista baten inguruan 'batu' zuen, hegoaldeko estatuen erresistentziaren aurrean.

Laugarren alderdi sistema (1896-1932): Progresibismoaren sorrera:

- Industria gune nagusietatik sortuta (iparraldea).
- Bi alderdi nagusiei eragin zien zehar-lerroko mugimendua.
- Bi jardura lerro: a) alderdien barne ustelkeriaren aldeko borroka (primarioak, ...); eta b) estatuaren arautzea eremu berrietan Theodore Roosevelt-en eskutik (lege antimonopolioa, lan araudia, sufragioaren zabalpena -emakumeak eta natiboak-, 'lege lehorra', ...).
- Nagusitasun errepublikanoa, demokratik hegoaldera mugatuak.

Bosgarren alderdi sistema (1932-1968):

- 1929ko crack-a eta gero, demokratik lehendakaritzara iristen dira F. D. Roosevelt-en programa interbentzionistaren (New Deal) eskutik; funtsezko biraketa ideologikoa bertako alderdi sisteman, demokratek lehen aldiz interbentzio lerro federal baten alde agertzen direlarik.
- Oinarri demokrataren zabalpena katoliko, judutar, sindikatu, etorkin eta hiriguneetako sektoreekin. Iparraldea demokrata bozkatzeko hasi zen.
- Bi alderdi nagusien arteko urruntze ideologikoaren hasiera kanpo politikagatik (Vietnam) eta biraketa errepublikanoagatik (filosofia antigubernamentalak).

Seigarren alderdi sistema (1972-...):

- Ideologizazio eta polarizazioa (moderatua) alderdien artean R. Nixon-en agintaldian zehar. Egungo ideologiaren egonkortzea:
 - Demokratik: sektore liberalak eta sekularrak, gutxiengoak eta bi kostaldeetan babesa.
 - Errepublikanoak: hegoaldeko eta erdi-mendebaldeko sektore kontserbadoreagoak eta erlijiosoak (bozkatzailerik txuri anglosajoiak).
- Cleavage-ak: estatuaren esku hartzearen zabalpena, eztabaida 'kulturalak' (abortua, ezkontza homosexuala, armak, ...), 'klase' gaien kalteetan.
- 'Iraultza kontserbadorea' 70ko hamarkadatik aurrera, Tea Party eta R. Reagan-en ondorengo gobernuan forma hartu zuena: estatuarekiko oldarkortasuna (zergak, ...), norbanakoen askatasunen nagusitasuna eta patriotismo manikeoa. Burnizko Harresiaren erorketa eta gero, George H. Bush joera hau apaltzen saiatu zen, baina desmobilizazio errepublikano honek Bill Clinton-en ondorengo garaipenari ateak ireki zizkion.

Alderdi Demokrata:

- 1928an sortua.
- Ideologia: Orokorrean, EEBBetako liberalismo politikoa eta aurrerakoitasuna ordezkatzeko errepublikano aurrean. Merkatu ekonomiaren aldekoak, estatuaren esku hartze maila batekin desorekak zuzentzeko ('giza-aurpegia duen kapitalismoa').
- Korronteak:
 - Moderatuak ('Demokrata Berriak'):
 - Demokraten joera zentristena ordezkatzeko, Bill Clinton-en legatua bere eginez, gai sozialetan baino hazkunde ekonomikoan zentratu zena. Nagusi demokraten artean.
 - Interbentzionismo handia kanpo politikan: 90 hamarkadako erdialdetik Balkanetako Gerran, Kosoxo (1998) eta ondoren Obamaren garaian Libian (2011) eta tropa berriak bidaliz Afganistanera (2016).
 - Ondorengotza Hillary Clintonen figurarengan, Obamaren aurkako primarioak irabazi ez bazituen ere (2008), 2016an Bernie Sandersen kontra lortu zuen, baina Trumpen aurka galduz, nahiz eta bozketan irabazi.
 - Aurrerakoiak:
 - 60ko hamarkada bukaeran sortutako mugimenduetan (bakezaletasuna, ekologismoa, feminismoa, ...) izango luke jatorria.
 - Ekonomian: enpresa handien gehiegizko esku hartzearen kontrakoak; zergak altuagoak mantendu nahi, programa sozialei eutsi ahal izateko.
 - Azken urteetan B. Sanders edota A. Ocasio-Cortez bezalakoek eskutik indarra hartu du.
- Edozein kasutan, ez dago koherentzia ideologiko estua, ezta bozka diziplina zurruna eremu legegilean, ohikoa izaten delarik demokratik proposamen errepublikanoen alde bozkatzea, eta alderantziz.
- Joe Biden-en urtebeteko agintaldia:
 - Obamaren presidente-ordea: Bill Clinton-en azken gobernuarekiko biraketa 'aurrerakoi' bezala ikusia izan zen (Suspertze Ekonomikorako Legea, 2009; Obamacare, 2009; multilateralismoa eta interbentzionismoaren uztarketa kanpo politikan; ...). Joera moderatua demokraten barruan.
 - Izaera sozialeko hainbat agindu bere agintaldiko lehen egunetan: Pariseko Akordio Klimatikoa, Mexikoko mugan larrialdi egoera bertan behera, OMSra atxikitu, Yemenen interbentzioaren kontra, ...
 - Bere onarpen mailak behera egin du hilabeteotan zehar: Afganistango erretiratzea, hazkunde ekonomikoaren moteltzea, inflazioaren hazkundera, ...
- Ordezkaritza instituzionala: Ordezkarien Ganbara 221/435, Senatua 50/100.

Alderdi Errepublikanoa:


- 1854an sortua whig-en ondorengo bezala.
- Ideologia: izaera kontserbadorea; liberalismo ekonomikoaren, merkatu librearen, estatuaren esku hartze ahalik eta txikienaren eta zergen jaitsieraren aldekoa.
- Korronte ezberdinak:
 - Moderatuak:
 - Zergen jaistearen ez horren aldekoak; gastu publikoa handitzearen aldekoagoak (batez ere programa sozialetan); beste errepublikano batzuk onartzeko prest dauden estatu zabalago baten aldekoak; gai sozialetan (abortua, homosexualitatea, ...) jarrera toleranteagoa.
 - Republican Main Street Partnership bezalako presio taldeetan biltzen dira.
 - Bere azken erreferente nagusietako bat G. H. Bush 'aita' (edota G. W. Bush-en -'semea'- lehen urteak, 11/S-ra arte?) izan zitekeen. Atzerakada nabarmenean Reagan-en 'Iraultza Kontserbadoretik' aurrera.
 - Ultra-kontserbadoreak/erreakzionarioak: hainbatetan teilakatzen diren hainbat azpi-korronteekin:
 - Teokontserbadoreak: hainbat eliz kristauetako aktibista fundamentalistek osatutako mugimendua (batez ere, ebangelistak). Politika beraien ikuspegi erlijiosoan oinarritzen dute. Abortuaren edo ezkontza homosexualaren aurkari sutsuak. Hainbat apaiz ebangeliko buruzagi errepublikano bihurtu dira eta eliztarrak beraien bozkatzaileak. National Federation of Republican Assemblies-ek korronte honetako hautagaiak babesten ditu, beste hautagai errepublikanoen kontra agertuz.
 - Neokontserbadoreak (neocon): EEBBak 'aukeratutako herriaren' paperean kokatzen dute, bere eginkizun nagusia demokrazia munduan zehar zabaltzea litzatekeelarik. Soilik kanpo politika erasokor batek babestu ditzake bere kanpo etsaietatik, horretarako indarra erabiliz munduko edozein lekutan beharrezkoa bada. Logika unipolarraren arabera ikusten dute politika, interes nazionalak ez direlarik sakrifikatu behar nazioarteko kontsentsuen mesedetan. Bere erreferente nagusietakoak Dick Cheney, Bush-en presidente-orde edo Mike Pompeo, Trumpen Estatu Idazkaria.

- Paleokontserbadoreak: komertzio askearen kontrakoak; interbentzionismoaren kontrakoak jarrera aislazionistak erakusten dituzten heinean. Inmigrazio ilegalaren kontrakoak eta gutxiengo etnikoen kontrakoak. Korrante honek indarra hartu zuen Txinaren kontrako gerra komertzialarekin.
- Bi korrante hauek beraien inguruan talde eta lobby asko dituzte beraien gaineko presioa eragiten dutenak alderdi errepublikanoaren politikak baldintzatzeko. Talde hauen artean nabarmendu daitezke: Tea Party, hegal erreakzionarioenetakoa, Obamaren politiken aurka ezaguna egin zena, besteak beste, Sarah Palin-en eskutik (John McCain-ekin presidente-ordetzarako hautagaia izan zena); Steve Banon-en Alt Right ('molde ezkertiarak' dituen eskuin muturreko taldea; Raim, 2016: 54); edota QAnon teoria konspiratzaileen defendatzaileak, Georgiako ordezkaria den Marjorie Taylor Green eskutik.
- Ordezkaritza instituzionala: Ordezkarien Ganbara 213/435, Senatua 50/100.

Agintaldiak: 1933tik zortzi demokrata (49 urte) eta zazpi errepublikar (40 urte).

Hirugarren alderdien ahultasuna (Ramos, 2016):

- Instituzionalak: hauteskunde sistema uninominal zuzena; gerrymandering-a, barrutiak egokituz zenbait alderdien mesedetan, egokitzapen demografikoaren aitzakia pean.
- Historikoak: bi proiektu politiko nagusien arteko distantzia ideologiko erlatiboki laburra. Ez klase gatazkarik egon beste herrialde batzuetan bezala, sindikatuek paper integratzailea jokatu zutelarik. Alderdiak 'interes koalizio zabalak' bihurtzen dira.
- Finantziarioa: baldintza zorrotzak.
- Antolakuntzazkoak.



7. GAIA: EGUNGO KONPARAZIO MULTIDIMENTSIONALA ETA ENPIRIKOA

ALMOND ETA PLURALISMOA

Zientzia Politiko modernoaren birsorkuntza II. Mundu Gerra eta gero, besteak beste, Gabriel A. Almond eta bere Comparative Political Systems (1956) klasikoaren eskutik, pluralismoaren lanketa ekarri zuena.

Bertan demokraziak era sistematikoan alderatzen ditu, sistema politikoaren konparazio modernoaren zutabeak jarritz.

Bere ekarpen nagusia bi dimentsioen araberako diseinu-analisi bat mahai gaineratzea izan zen: kultura politikoa eta rol egitura. Lau erregimen mota ezberdintzen zituen:

- Totalitarioak.
- ‘Aurre-industrialak’ edo ‘partzialki industrializatuak’ (autoritarioak).
- Kontinental europarrak: kultura politiko zatikatuak eta kultura zehatz horietan errotuak dauden rol egitura ezberdinak.
- Anglo-amerikarra: kultura politiko homogenea eta rol egitura oso ezberdindua.

Egitura anglo-amerikanoa: sistema bipartidista, gehiengo hauteskunde sistemekin (barruti uninominalak), txandakatzen diren kolore bakarreko gobernuak. Kasuak: EEBB, Erresuma Batua eta, orokorrean, Commonwealth-eko herrialde gehienak.

Egitura kontinental europarra: sistema pluripartidistak, hauteskunde sistema proportzionalak, gobernu forma oso ezberdinekin eta hainbatetan alternantziarik gabe. Kasuak: Frantzia (III eta IV. Errepublika), Weimarreko Errepublika eta II MG-ko Italia.

Demokrazia bakoitzaren ebaluazioa:

- Irizpidea: egonkortasun politiko-demokratikoa.
- Anglo-amerikarra hoberena litzateke aldaketa, ezegonkortasun eta biolentzia sortzeko arrisku txikiena duelako. Ohiko botere banaketatik harago doan ezberdintzea dago: alderdiak, sindikatuak eta MMSS-ak elkarrekiko independenteak.
- Sistema kontinental europarrean politika zatikatu eta talde ezberdinen arteko dependentziarekin aurkitzen gara. Almondek sistema ezegonkorrarekin eta ‘potenzialki totalitarioarekin’ identifikatzen ditu, hausturarako aukeragatik.

Laburbilduz, Almond-en arabera eredu anglo-amerikarra jendarte ez-pluralistetan ematen da, non interesen agregazioak funtzionatzen duen; aldiz, eredu kontinentalean agregazioak ez du funtzionatzen jendarteak pluralak direlako.

Almond eta bere kolaboratzaileen (Powel, ...) ekarpena bere testuinguru historikoan kokatu behar da:

- Pluralisten arabera sistema demokratiko bat garatu eta bere egonkortasuna lortzeko zatiketa soziala gainditu beharreko traba da.
- Akademiak barneratu zuen sistema demokratikoek egonkortasun lortzeko lehenengo cleavage sozial, etniko, erlijioso eta kulturalak gainditu behar direla.

Lijphart-ek (1968a, 3-15) egitura sozial eta portaera politikoaren arteko harremanen inguruan teoria pluralisten ikuspegi ezberdinak biltzen ditu:

- Heterogenitate soziala egonkortasun demokratikorako traba da.
- ‘Bigarren mailako taldeen’ (“antolatutako heterogenitate soziala”) existentzia arriskutsua da, eta egon behar bada, hobeto talde asko, txikiak eta antzeko tamainakoak izatea.
- Interesen agregazioa ezinezkoa egiten bada egonkortasuna zaila izango da. Aldiz, gatazkak behera egingo du zatiketa sozialak zehar-lerrokoak badira, hau da, identifikazio politikoei gainjartzen bazaizkie.

LIJPHART ETA KONSOZIAZIONALISMOA

60 eta 70ko hamarkadetan zehar, gatazka sozial ezberdinak areagotzearekin batera, ZZ.PP.etan ezkortasuna nagusitzen joaten da, sistema demokratikoak pluralistek aldarrikatutako ezaugarrietatik aldentzen direlako, eredu anglo-amerikarra eredu zutena.

Lijphart-en eskutik ikuspegi aldaketa ematen da 70ko hamarkadan zehar:

- Azken eredu hori Europako herrialde txikiagoetako demokrazietara ez dela egokitzen planteatzen du. Eredu angloamerikarra eta kontinentalaren artean kokatuko liratekeen gutxi ikertutako kasuetan jartzen du arreta.
- Eredu anglo-amerikarraren emaitza berdina (egonkortasun demokratikoa) lortzen dituen eredu litzateke, baina egitura sozial eta instituzional ezberdinekin (anitzak eta zatikatuak).
- Adibidez, Holanda (60ko hamarkadan) ‘desbiatutako kasua’ bezala: zatiketa sozial eta erlijioso ezberdinak zeharkatutako herrialdea, azpisistemetan isolatutako hainbat taldeekin, baina demokrazia sendoa, egonkor eta iraunkorra duena. Gakoa: eliteen izpiritu konsensuala.
- Errealitate hau beste demokrazia europarretan ematen dela berresten du (Austria, Belgika, Suitza, ...). ‘Demokrazia konsoziazionalak’ bezala ezaugarrituko ditu: marko demokratiko baten barruan oso zatikatutako talde sozialen arteko harreman gatazkatuak nola kudeatu argitzen saiatzen dira; hau da, gehiengoaren araura ahalik eta gutxien jotzen saiatzen da ezegonkortasun politiko eta soziala ekiditeko.

Aldiz, joera hau Holandan ere aldatu egiten da 70ko hamarkadan zehar, konsoziazionalismoaren gainbehera eta aurkaritza politikoaren igoera ekarritik. Kontzeptua egokitzearen beharra.

Oinarrizko bi demokrazia eredu:

- Gehiengoena ('gehiengoak diona'):
 - Gobernua gehiengo txiki edo erlatiboaren esku.
 - Eredu baztertzaila, lehiakorra eta gatazkatsua.
- Adostasunezkoa edo konsensuala ('ahalik eta jende gehien'):
 - Gehiengoaren gobernua gutxieneko baldintza bezala.
 - Gobernuan parte hartze handia eta bere politiken gaineko adostasun zabala.
 - Eredu barneratzailea, paktista eta konpromisozkoa; 'negoiazio demokrazia'.

Adostasunezko demokrazia eta konsoziazionalaren artean bereizten ditu:

- Adostasunezkoa: pizgarriak sortzen ditu boterea era zabalean banatua izan dadin (power-sharing).
- Konsoziazionala: talde garrantzitsu guztiak gobernuan parte hartzera behartu egiten du.

Demokrazia eredu ezberdinen sailkapena hamar aldagairen arabera; era berean, bi dimentsioetan bildu daitezkeenak:

Exekutibo-alderdiak dimentsioa:

- Exekutiboaren boterearen (des)kontzentrazioa :
 - Alderdi bakarreko gobernuak edo alderdi anitzeko koalizio multipartidistak.
- Exekutibo-legegile harremanak:
 - Exekutiboa nagusi edo bien arteko oreka.
- Alderdi-sistema:
 - Bipartidismoa edo multipartidismoa.
- Hauteskunde-sistema:
 - Gehiengozkoak edo proportzionalak.
- Interes taldeak:
 - Koordinatuak eta korporatistak edo kompetentzia askea.

Federal-bateratu dimentsioa:

- (Des)zentralizazioa:
 - Bateratu edo federala.
- Ganbara kopurua:
 - Unikamerala edo bikamerala.
- Konstituzio motak:
 - Zurrnak edo malguak.
- Konstituzionalitatearen kontrola:
 - Botere legegilea edo berrikuspen judiziala.
- Banku zentrala:
 - Exekutiboaren menpekoak edo independenteak.

Sistema demokratikoen oinarrizko ezaugarriak (Dahl, 1971):

- 1) Bozkarako eskubidea.
- 2) Hautatua izateko eskubidea.
- 3) Lehiatzeko eskubidea.
- 4) Hauteskunde askeak.
- 5) Elkartzeko askatasuna.
- 6) Adierazpen askatasuna.
- 7) Informazio iturri alternatiboak.
- 8) Instituzio demokratikoak.

Aukeratzeko irizpideak:
tamaina (>250.000 biztanle) eta iraupena (>19 urte).

Decade	First year analyzed	Democracies
1940s	1945	Austria, Canada, Denmark, Finland, Luxembourg, Norway, United Kingdom
	1946	Australia, Belgium, Iceland, Italy, Japan, Netherlands, New Zealand, United States
	1947	Switzerland
	1948	Ireland, Sweden
	1949	Germany, Israel
1950s	1953	Costa Rica
	1958	France
1960s	1961	Trinidad and Tobago
	1962	Jamaica
	1965	Botswana
	1966	Barbados, Malta
1970s	1972	Bahamas
	1974	Greece
	1976	Mauritius, Portugal
	1977	India, Spain
1980s	1984	Argentina
	1985	Uruguay
	1988	Korea

Metodologia:

- 1) Herrialde bakoitzari zenbakizko balio bat ematen zaio hamar aldagaietako bakoitzean.
- 2) Aldagai bakoitzaren balioa dagokion dimentsioan kokatzen da.
- 3) Jarraian dimentsio bakoitzeko aldagaien balioak estandarizatu egiten dira; hau da, eskala bakarra ezartzen zaie.
- 4) Estandarizatutako balio hauen batezbestekoa ateratzen da, herrialde bakoitzak dimentsio bakoitzean balio bakar bat izanik.
- 5) Dimentsio bakoitzak balio bat izango du, herrialde ezberdinen balioen batezbestekoa ateraz. Balio hau 0 izango da eta herrialde bakoitzak horrekiko desbideratze estandar bat izango du. Balio positibo/negatiboak doitu behar dira: altuak→gehiengo demokrazia; baxuak→adostasunezko demokrazia.
- 6) Herrialde bakoitzaren balioak dimentsio bakoitzean mapan ezartzen dira.

Mapa bidimentsionalaren ondorioak:

Mapak demokrazia bakoitza gehiengo edo adostasunezko ereduarekin harremanetan jarri eta herrialde ezberdinen arteko alderaketa egiteko balio du.

Erresuma Batua eta Zelanda Berria goiko eskuineko aldean kokatzen dira (gehiengo eredu), EB exekutibo-alderdi dimentsioan gehiengozkoagoa izanik eta ZB federal-bateratuan.

EEBBak beheko aldean kokatuta egongo lirateke bere dimentsio federalagatik eta gehiengozko joera izango luke exekutiboalderdi dimentsioan (bere sistema presidentzialistagatik), baina ez era nabarmenean botere legegilearen kontrapisu funtzioagatik (check&balance).

Frantzia Europa kontinentaleko eredu gehiengokoenetakoa litzateke.



Era orokorrean, herrialde europar kontinentalen gehiengoa ezkerreko aldean kokatzen dira (adostasunezkoak exekutiboalderdi dimentsioan). Karibeko irlak (beraien artean oso gertu daudenak) eskuineko aldean (gehiengo eredu), eragin kolonial britaniarragatik. Azken honekiko salbuespenak daude (India, Israel eta Maurizio, ezkerrean kokatuak) jendarte anitzak edo erdi-anitzak direlako; baita Costa Rica edo Argentina, nahiz eta anitzak ez izan. Bi aldagai hauek (kolonialismo britaniarra eta aniztasunak) izaera esplikatzailerak izango lukete. Gainera, dimentsio federal-bateratuan, biztanleriaren tamainak ere bai; lau herrialde populatuena (EEBB, India, Alemania eta Japonia) beheko partean (adostasunezkoa).

Herrialde demokratikoen desplazamenduak; metodologia:

- Mapa bidimentsionalaren datuak epealdi luze bateko batez bestekoak dira eta honek denboran zeharreko aldaketak ezkututzen ditu.
- Aldaketa hauek aztertzeko 1945-2010 epealdia bitan banatu zen: 1945-1980 eta 1981-2010.
- Aurretik aztertutako 36 herrialdeetatik bederatzi alde batera utzi ziren bi epealdietako batean motzak izateagatik edota 1981 eta gero demokratizatu zirelako.
- Herrialdeen arteko aldaketak erlatiboak dira; hau da, guztien batura zero da. Adib.: EEBBek puntuazio berdina dauka bi epealdietan baina bere geziak desplazamendu txiki bat adierazten du.
- Hortaz, mapak ezin izango du erantzun ea joera orokor bat egon den gehiengoko edo adostasunezko sistemetara 1945-2010 epealdian.

Desplazamenduen ondorioak:

- Koadro orokorra egonkortasun handikoa da. Aldaketa erlatiboki txiki asko erakusten ditu baina ez eraldaketa erradikalak: herrialde batek ere ez zuen aldatu gehiengo sistema argi batetik adostasunezko demokrazia batera era argian; ezta alderantziz ere.
- Aldaketa gehiago ezker-eskuin ardatzean (exekutibo-alderdi dimentsioa), gora-beherakoan baino (dimentsio federalunitarioa). Batasun federalaren ezaugarri instituzionalen egonkortasun handiagoa erakusten du, normalean hauek konstituzioan errotuak egoten direlako.
- Frantzia: beheko joera, bigarren epealdian emandako deszentralizazio erlatiboagatik eta konstituzioaren kontrol judizialaren erreformagatik.
- Erresuma Batua: eskuinerako mugimendu nabarmena (gehiengo sistema) alderdi kopuruan emandako igoera erlatiboa emanda ere (2,10tik 2,27ra) gauzatu zen, desproporzioaren hazkunde nabarmen batengatik zuzenduan izan zena (%8,97tik %16ra, alderdi nagusien alde); baita exekutiboaren nagusitasunaren hazkundeagatik (Thatcher eta Blairren gobernuen gehiengo zabalak).
- Alemania: eskuinerako mugimendu apala 'gutxieneko irabazleen gabinetean' hazkundeagatik (hau da, ezinbesteko gutxienekoa biltzen dituztenak gobernu osatzeko; Kohl FDPekin 1982-1998 eta Schroeder Berdeekin 1998-2005), 60ko hamarkadako GroKo urteen aurrean.



Gehiengora edo adostasunerako joera orokorren bat dagoen jakiteko, oinarritzko aldagaien estandarizatu gabeko batez besteko puntuazioak begiratu behar ditugu.

Zortzi aldagaietan, joera adostasun handiago baten aldekoa da, baina bakarrik hauetako hirutan ematen dira aldaketa esanguratsuak: multipartidismo handiagoa, alderdi bakarreko gabinetek gutxiago (-%10) eta berrikuspen judizial sendoagoa.

Kontrako joera adierazten duten bi aldagaien artean, bakarrik hauteskunde desproporzioaren hazkundera esanguratsua da.

Joera orokorra adostasunezko demokrazien hazkundera da, baina ez joera oso indartsua.

TABLE 14.3

Average values on the ten variables distinguishing majoritarian from consensus democracy in twenty-seven democracies, 1945–80 and 1981–2010, the differences between the second and first periods, and the majoritarian (M) or consensual (C) direction of these differences

	1945–80	1981–2010	Difference
Executives-parties dimension			
Effective number of parliamentary parties	3.06	3.44	+0.38 (C)
Minimal winning one-party cabinets	60.7	54.3	-6.40 (C)
Executive dominance	4.99	4.95	-0.04 (C)
Electoral disproportionality	6.88	7.96	+1.08 (M)
Interest group pluralism	1.92	1.83	-0.09 (C)
Federal-unitary dimension			
Federalism-decentralization	2.28	2.39	+0.11 (C)
Bicameralism	2.29	2.19	-0.10 (M)
Constitutional rigidity	2.59	2.65	+0.06 (C)
Judicial review	1.90	2.13	+0.23 (C)
Central bank independence	0.38	0.39	+0.01 (C)

Ondorio orokorrak: “*Jarduera demokratikorako benetan garrantzitsua da gehiengo eta adostasunezko demokrazien arteko aldea*”?

- Exekutibo-alderdi dimentsioan:
 - Gehiengo demokraziek dituzte adostasunezkoak gainditzen kudeaketa makro-ekonomikoan (inflazioa, langabezia eta greba egun kopurua) eta biolentziaren kontrolean.
 - Gainera adostasunezko demokraziek balore demokratiko ‘onberak’ balioan jartzen dituzte, gehiengo sistemen aurrean: emakumeen ordezkartza maila, berdintasun politikoa, hauteskunde parte hartzea, demokraziarekiko asebetzea, ustelkeriaren apaltzea, ...
- Federal-unitario dimentsioan adostasunezko demokraziak abantailak ekartzen dizkio herrialde handiei.
- Hortaz, Lijphartentzat edozein demokratizazio prozesuetan jarraitu beharreko eredua adostasunezkoa da, batez ere jendarte pluralei badagokie.